



5

**HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN GAZTEEN
BIZITZA AKTIBORAKO TRANSIZIOA:**

**ZEREGINEN IKASKUNTZARAKO
PROGRAMAREN CURRÍCULUM-ESPARRUA**

Curriculuma Eratzeko eta Irakasleen Prestakuntzarako Institutua.

Hezkuntza-Premia Berezien Arloa.

Dokumentu honen egileak: Jose Ramón Ugarriza Ocerin
Rafael Mendia Gallardo

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza

Vitoria-Gasteiz. 1997ko Apirila

Zereginen Ikaskuntzarako...

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	4
------------------	---

I ZATIA

2.- HPB-AK DITUZTEN GAZTEAK ETA HELDUTASUNERAKO TRANSIZIOA	5
3.- HPB-AK DITUZTEN IKASLEAK BIGARREN HEZKUNTZAN	6
4.- BURUTIKO ATZERAPENEKIN LOTUTAKO HPB-AK DITUZTEN IKASLEEI EMANDAKO ERANTZUNAK	8
4.1.-Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelak.....	8
4.2.-Lanbide-Hastapenerako Ikastegiak.....	8
5.- BANAKAKO TRANSIZIO PLANA.....	9

II ZATIA

6.- ZEREGINEN IKASKUNTZARAKO PROGRAMA.....	12
6.1.- Xedeak.....	12
6.2.- Helburuak	13
6.3.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteekin lan egiteko printzipioak.....	13
6.4.- Zereginen Ikaskuntzarako Programaren egitura	15
7.- ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK ETA ANTOLAMENDURAKOAK	19
7.1.-Hezkuntza-edukinen hautaketa	19
7.2.-Curriculum arrunteko edukin, espazio eta denbora berak erabiltzeko irizpideak.....	19
7.3.-Estrategiak eta metodologi printzipioak.....	21
7.4.-Curriculum-Egokitzapenak.....	23
7.5.-Egokitzapen ergonomikoak	25
7.6.-Prozesu orientatzailea.....	26
7.7.-Taldearen tutoretza Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela	27
7.8.-Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelaren antolamendua	28
7.9.-Curriculum-materialen hautaketa	31
7.10.-Integrazioaren aldeko jarrerak bultzatzen	32
8.- EBALUAZIOA.....	34
9.- IKASGELAKO PROIEKTUA	35

III ZATIA

10.- PRESTAKUNTZA-MULTZOAK	37
10.1.-Oinarrizko Ikaskuntzen Zikloa	39
10.2.-Berariazko Ikaskuntzen Zikloa	43
10.3.-Lantokietako prestakuntza.....	48
11.- BIBLIOGRAFIA.....	52

1.- SARRERA.-

Autonomi Elkarte honetan Hezkuntza Berezia araupetzen zuen Agindua argitara eman ostean (1.982ko iraila) eskola-integrazioaren alorrean aurrerapen handiak izan badira ere, argi dago integrazioa gero eta gehiago eta gizarte-garapen handiagoa bultzatzen duten ingurune normalizatuagoak garatu beharra dagoela oraindik, hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteek aurkitu ohi duten eragozpen-multzoa murriztu behar dela, alegia, nortasuna ahal bait gehien garatzeko eta kide diren elkarte honetako arlo guztietan partaide izateko.

Zentzu honetan Hezkuntza- Sistemaren Antolamendu Orokorreko legearen aprobazioa (1.990), bere 36.3 artikulua dioenez, hezkuntz behar bereziko ikasleengan aditasunak, normalizazioa eta integrazioa printzipiotzat hartuko ditu.

Gure Autonomi Elkarteari dagokionez, Euskal Eskola Publikoari buruzko legeak (1/1.993) zera agintzen du: "...gorputz nahiz adimen-ezintasunak dituztenei laguntzeko banakako neurriak hartzeko ahaleginak egingo dira. Hezkuntzako behar bereziak aurrezaintzeko, garaiz antzemateko, testuingurua kontutan hartuz ebaluatzeko eta behar berezi horiei erantzun egokia emateko neurriak hartuko dira. Ahal denean, behintzat, gela arruntetan eskolatuko dira ikasle guztiak, eta behar-beharrezko denean baino ez ikastetxe arruntetako heziketa bereziko geletan. Ezinbesteko izan dadinean, heziketa bereziko ikastetxeetan emango zaie heziketa ikasle horiei " (Art. 10.4).

Era berean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Curriculum Garapenerako Dekretuak (213/1.994) 19.2 artikulua dioenez: "...ikasleen ahalbideak kontuan hartuta, etapako berezko gaitasunak erdiesten laguntzeaz gain, taldean ahal bait gehien integratzeko bidea ere emango diete" eta 19.4-k "...hezkuntza-premia bereziak izanik, Bigarren Hezkuntzan Graduatu titulua eskuratzen ez duten ikasleek lan munduan sartzeko moduko prestakuntza izateko baldintzak finkatuko ditu".

Horrela izanik, azken hamarkadak ezaugarri nagusi bat izan du alor honetan, hots, sozial politika berrizaleak abiarazi direla, segregazio-praktika tradizionalak baztertu, urritasunen bat duten gazteak eskolan, lanean eta elkartean integratzen saiatuz.

Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle-kopurua eskolaratzea areagotu denez, Zeregin Ikaskuntzako ikasgelak direla medio eta, hezkuntza-sistemaren erreforman jasotako postulatuetan aniztasuna guztiok onetsitako hezkuntza-printzipio denez honez gero, hezkuntzako esku-hartzea osatzen duten elementuak berriro zehaztu beharko ditugu aurrerantzean, gazte bakoitzari egokitu behar baitizkiogu, gazte horren ohizko giroa kontuan hartuta egokitu ere, eta helburu zehatz batzuk, testuinguru jakin bat eta mugatutako denbora ezarri.

Izan ere, eginkizun nagusia ondokoa da: hezkuntzak bere helburua beteko duela, hau da, gazteak eskolatik heldutasunera eta lan-mundura igarotzeko bide izango dela bermatuko duten baldintza pertsonal eta sozial egokiak prestatzea.

Hemen proposatutako curriculum-esparruan orientabide eta jarraipide orokorrak bildu ditugu, aipatu gazteei gizartean modu egokian sartzeko aukera emateko asmoz eta, integrazio soziokomunitario egokia bultzatzeko hezkuntza-erantzuna homogeneizatzeko erreferentzi gisa edo, lanpostu bat lortzeko behar duten prestakuntza eman ahal izateko.

EDURNE GUMUZIO AÑIBARRO
Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaria

I ZATIA

2.- HPB-AK DITUZTEN GAZTEAK ETA HELDUTASUNERAKO TRANSIZIOA

"Heldu" kontzeptuak esanahi-maila bat baino gehiago duen arren, halako posizio edo maila, gizarte nahiz lanbide-arlokoa, aditzera ematen du. Maila horri erantzukizun, pribilegio edo onespén-gradu desberdinak dagozkie, jakina.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteei aplikatuz gero, "heldu" kontzeptuak gazte horiek gizartean dituzten leku, prestigio eta erantzukizunen arazoa planteatu ez ezik, onspén sozial eta pertsonalaren nahiz lege-aldetiko eskubideen problema sortzen zaigu.

Gazte guztientzat, oro har, nortasun heldua eratu, gai diren ziurtasuna hartu eta haurtzaroan hain beharrezkoa den familiako laguntzarik gabe bizi daitezkeela ohartzea esan nahi du heldu bilakatzeak. Haur izatetik heldu izatera igarotzeko urratsa norbere kasa bizitzeko gaitasunekiko autoestimua eta segurtasuna arian-arian hartzean datzala esan dezakegu; laguntza behar den guztietan eska daiteke, alabaina etengabe laguntza izan gabe -haurtzaroan gertatu ohi den bezala- bizitzen ohitzean datza heldu izatea. Prozesu hori nekeza izaten da gazte guztientzat, baina, urritasunen bat dutenentzat askoz gehiago.

"Transizio" kontzeptuak gazteek dituzten premia guztiak kontuan hartzea behartzen gaitu; hau da, hezkuntza-alorreko premiak ez ezik, bizitza osoan zehar gizarte-arloan, lan nahiz aisialdiarekin zerikusia duten guztietan izango dituzten premiak ere aztertu behar ditugu, eta laguntzeko sistemak finkatu, helduen munduan ahalik eta modu egokienean sar daitezten.

Bizitza aktiboan eta helduen munduan guztiz integratu ahal izateko egin beharreko bidean, oinarri-oinarrizko zutabea da hezkuntza-sistema, beste bideekin batera botere publikoen erantzukizun nagusienetarikoa bat delarik. Gauzak horrela, LOGSE onartuz geroztik sortutako erreformarako proposamen honen apusturik handiena egungo gizarteko planteamenduekin bat datorren hezkuntza-sistema da, gaur egungo munduaren konplexutasun teknologikoari erantzuteko gai dena eta lan-munduarekin askoz estuago lotuta dagoena, herritarrei erantzuteko aiposa den hezkuntza muinbakarra hain zuzen ere.

Nerabeak heldu bilakatzen diren gizarte-prozesu horren eginkizun nagusia hezkuntza-ibilbideak edo, bestera esanda, hartu beharreko bide desberdinak finkatzean datza, azkenean lan-munduan, hots, produkzio-sisteman leku bat bete ahal izateko.

Ibilbideak eratu ahal izateko, ordea, zona edo lurralde jakin bateko hezkuntza eta lan-egiturak zehaztu behar dira aurrena, bertako gizarte, ekonomi eta kultur erreferentziak, besteak beste, kontuan hartuta.

Haatik, hasieran bederen Hezkuntza-Sistemaren erantzukizuna bada ere, ezin ahantz daiteke transizio-prozesu horren azken ibilunean Lan-Sistemak eta Gizarte-Babeserako Sistemak daudela, eta prozesua bera erraztu behar duten sistemak direla horiek. Hori dela eta, transizio-sistemak, koherentea izateko, lan-munduan sartzeko prozesuak ahalbidetuko dituen departamentuarterako eta erakundearterako ekintza egokiak burutzea eskatzen du, ahal den dimentsio guztietan burutzea gainera, hots, helduen munduan sartu bezain laster laguntzea: etxebizitza-kontutan, astialdian, alor teknikoan eta abarretan eskua luzatzea.

Horrexegatik dute garrantzia izugarria "Banakako Transizio-Plan" izenekoek, hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteentzako transizio-programa egokiak garatu ahal izateko lankidetzako estrategiak baitira (kontuan hartu delarik aipatu gazte horien premiak hezkuntzakoak soilik izan gabe, lan, gizarte eta abarrekoak ere badirela).

Eskola eta enplegua lotzeko asmo horren ondorioz, hiru prestakuntza-aldi burutu behar dira "heldutasunerako transizio" deitu dugun horren barruan, hona hemen:

- Eskolako azken urteak
- Lanbide-Heziketa
- Lanbide-Hastapena

Hiru prestakuntza-aldi horiek modu askotara osa daitezke, egoera bakoitzean eta pertsona bakoitzaren kasuan egokiak diren prestakuntza-ibilbideen arabera.

3.- HPB-AK DITUZTEN IKASLEAK BIGARREN HEZKUNTZAN:

Oro har, hezkuntza-premia berezi iraunkorrakoak dituzten ikasleak, Bigarren Hezkuntzako kasuan kasuko hezkuntza-tarteunean sar daitezkeenak, alegia (Bigarren Hezkuntzaren barruan egungo Lanbide-Heziketa eta Batxilergoa bildu ditugula kontuan hartuta), bi talde handitan bana daitezke; hots:

1.- Zentzumen edo eta mugimen-urritasunek eragindako hezkuntza-premia bereziak dituztenak. Eskolaketa osoa ikasgela arruntean burutuko da horrelakoetan, baina hezkuntza-premiak direla-eta beharrezkoa izanez gero, irakasle arruntei lagunduko dieten laguntzaileak eta baliabide tekniko eta pertsonal egokiak izango dira eskuragarri. Goian aipatutako urritasunen bat duten pertsonen, laguntza egokiak badituzte, titulua eskuratzeko behar diren gaitasunak lor ditzakete erraz asko eta derrigorrezkoaren ondoko araututako irakaskuntza-sisteman jarrai dezakete nahi izanez gero.


Lehen kasu honetan, Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelan izan beharreko laguntzako hezkuntza-baliabideen eta ikastetxearen Orientabide-Zerbitzuen eginkizuna laguntzea da, azken batean estraineko multzo honetan sartzen diren ikasleen funtsezko erreferentea ikasgela arrunta da eta. Bestalde, kontuan hartu behar da halaber, aurkitzen dituzten eragozpenak murriztu egingo liratekeela oztopo arkitektonikoak ezabatuta (arrapalak, igogailuak, irolak etab. eraikita), edo eta protesi jakin batzuk, komunikazio-kode berezi batzuk nahiz beste edozein modutako metodologia didaktiko berariazkoa erabilia.

2.- Ezagutzazko urritasun orokorrek eragindako hezkuntza-premia bereziak dituztenak. Kasu horretan, hezkuntzako oinarriko helburuak erdiesteko eragozpenak handi samarrak dira.

Eskolaketaren oinarriko erreferentea Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela da. Curriculumean garrantzi berezia dute gizartean moldatzeko eta lana aurkitzeko benetan funtzionalak diren ikaskuntzek.

Dena den, iharduera arruntetan parte har dezaten bultzatu behar da ahal den neurrian, gainontzeko ikasleekin berezko elkartruke normalizatuak izan ditzaten.

*H.P.B-AK DITUZTEN IKASLEAK BIGARREN
HEZKUNTZAN*



4.- BURUTIKO ATZEREPENEKIN LOTUTAKO HPB-AK DITUZTEN IKASLEEI EMANDAKO ERANTZUNAK

Hezkuntza-egoeren aniztasunak egoera horiek guztiak kontuan hartzen dituzten erantzun anitzak eskatzen ditu.

Mugimen edo zentzumen-urritasunen bat duten ikasleek laguntza pertsonalak eta teknikoak, curriculum-egokitzapenak etab. behar dituzte. Ikasteko eragozpen larriak eta burutiko atzerapenen bat duten ikasleek, berriz, bestelako programa bat behar dute. Bigarren Hezkuntzaren berezko helburuak oinarritzat hartuta, gainerako pertsonen espazioak erabiltzeko, horien ekimen nahiz iharduera berberak izateko eta taldeak osatzeko -eta hori guztia ahalik eta modu normalizatuenean egiteko- bidea ematen dien testuinguru arruntean kokatuta, autonomia-maila handiagoa eskuratzeko edo lan-munduan sartzeko gaitasunak lortzeko aukera ematen zaie bigarren multzoko ikasleei.

Multzo horrekin berarekin jarraituz, erantzun nagusi bat eta zenbait kasutan erabil daitekeen beste erantzun osagarri bat prestatu beharra dago. Erantzun nagusia "Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelen" bidez nahiz "Zereginen Ikaskuntzarako Programen" bidez emandakoa da. Erantzun osagarria, ordea, egun gure Autonomi Elkartearen Gizarte Garantiako Programak lantzen ari diren "Lanbide-Hastapenerako Ikastegietan" jorratutakoa da.

4.1.-Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelak

Erantzun-modalitate hau 16 urterekin hasi eta 19/20rekin bukatzen den prestakuntza-prozesu egituratu batean datza. Hezkuntza-sistema eta lan-mundua nolabait hurbiltzea du helburu, "heldutasunerako transizio" izenekoaren estraineko aldia osatzen duelarik.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak bigarren hezkuntzan sartzeko aukera dutenez gero, etorkizunean lanbide eta lan-eremuan nahiz gizarte-elkarteetan ahalik eta modu egokienean integratzeko bidea emango dien curriculuma eratu behar da. Izan ere, irakas-taldearen erantzukizun nagusia curriculum arrunteko hainbat alderdiren eta beste berariazko alderdien arteko oreka kausitzea da.

"Transizio-aldia" planifikatzea prozesu konplexua da oso, ikastetxeko irakasle-taldea lankidetzan estuan aritu ez ezik, elkartearen iharduten diren sare desberdinen arteko kooperazioa eskatzen duena, sare horiek hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteak lan arrunten bat edo, bestela, babestutako lanen bat eskuratzeko behar diren baliabideak izango dituztela bermatzen duten agenteak baitira azken finean.

Prozesu horretan guztiz ezinbestekoa da gurasoei eta ikasleei informazioa ematea eta horien partaidetza bultzatzea, hots, helburuak hautatzeko orduan duten iritzia kontuan hartzea, eskola bukatu ondoren dauden aukera desberdinak guztien artean aztertzea eta, guztien interesak eta aburuak kontuan hartuta, aukera egokienak erabakitzea.

4.2.-Lanbide-Hastapenerako Ikastegiak (LHIK)

Lanbide-Hastapenerako Ikastegiak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bultzaturik eta horren dirulaguntzari esker sortu ziren Euskal Autonomi Elkartearen, Udalen eta Mankomunitateekin elkarlanean garatutako proiektu baten bitartez. Ikastegiek helburu nagusi bat dute, hots, inolako ikasketa edo lanbide-kualifikaziorik gabe hezkuntza-sistema bertan

behera utzi duten 16 urtetik gorako gazteei oinarrizko lanbide-heziketa eskaintzea. LHIKetan lantzen den Lanbide-Hastapenerako Programa araututako irakaskuntza-sistemak eskainitakoaz besteko aukera gisa sortu da, eskolatik bizitza aktibora igaro behar duten gazteei prestakuntza eman eta moldatzen laguntzeko asmoz.

Lanbide-Hastapenerako Ikastegiak direla-eta, gaur egun indarrean dagoen araudiak modua ematen dio hezkuntza-premia bereziak dituen zenbait ikasleri prestakuntza-programa ikastegi horietan burutzeko, beti ere arauetan jasotakoaren arabera, tailer bakoitzean inolako premia berezirik ez duten lagunekin batera egon daitekeen ikasle-kopurua mugatua dela kontuan hartuta.

Hezkuntza-premia bereziak izanik ere, ederki murgilduko lirateke LHIK batean burututako prestakuntza-prozesuan gizarteratze-prozesu egokia izan duten ikasleek, taldean nahiz bakarka ongi moldatzen direnek, alde zuzeneko esku-hartze programaren bat landu dutenek eta, oro har, normalean jokabide disruptiborik ez dutenek.

16 urte zituztenetik 18 bete arte Oinarrizko Ikaskuntzen Zikloa egin badute, dituzten ezaugarri eta ibilbide pertsonalak hala gomendatuz gero, noski, erantzun egokiagoa aurkitu ohi dute LHIKetan burutzen den berriazko lanbide-hastapenerako inguruneetan berriazko ikasketen fasea gara dezaten.

Oro har, LHIKei buruzko arategiak ezartzen duenez, bertan baimendurik baitago, hezkuntza-premia berezi jakin batzuk eta autonomia pertsoleko maila altua duten ikasle guztiak izan dezakete arestian aipatutako ezaugarriak dituen lanurreko eremuan sartzeko aukera.

Esanak esan, bistan da ikasle-mota horrekiko asmoak lanbide batekin nahiz lanbide-multzo batekin zerikusia duten zereginen ikaskuntzen eremuan kokatzen direla batik bat. Baina horretarako, behar diren curriculum-egokitzapen guztiak burutu beharko ditugu ezinbestez.

Gorputz nahiz zentzumen-urritasunak (ikusmen urriko pertsonak, itsuak, gorrak, etab.) dituzten gainerako ikasleak ikasle arruntzat joko dira; hori dela eta, horrelako kasuetan LHIKetako prestakuntza-curriculumari egokitzeko iharduera batzuk besterik ez lirateke burutu beharko.

5.- BANAKAKO TRANSIZIO-PLANA

Aurretik esan denez, Zereginen Ikaskuntzarako programa, heziketa beharrian bereziak dituzten gazteen transizioaren lehenengo fasea da.

Dokumentu honetan behin eta berriz errepikatu dugu "Banakako Transizio-Plan" kontzeptua, esku-hartzerako hipotesiak ezartzeko estrategia gisa, gazteari heldutasunera heltzerakoan beharrezko izango dituen baliabideak luzatu ahal izateko bide gisa. Transizioa are segurtasun handiagoz eta arrakasta izateko aukera handiagoz burutuko dute, hipotesi egokiak oinarritzat hartuta, elkarteko zerbitzu eta agenteak lanean arituz gero eta beharrezko baliabide guztiak aktibatuz gero.

Transizio-prozesuari buruzko egungo ikuspuntuaren arabera, prozesu hori osatzen duten sistema guztietako partaideen erantzukizuna da transizioa. Prozesu horrek gaztea, gurasoak, ikastetxeak, gazte nahiz helduentzako elkarteko zerbitzuak eta lan-

hornitzaileak barne bildu behar ditu. Transizio-prozesua planifikatzeko orduan gogoan izan beharko dugun elementuetariko bat ebaluazioa da, emandako zerbitzuak egokiak eta eraginkorrak izan ote diren zehazten baitu.

Transizio-prozesu orotan gertatu ohi diren nahaste txikiak are txikiago bilaka daitezke aldeztetik planifikazio eraginkorra prestatuz gero. "Transizioaren planifikazio" deritzo horri eta gazteek bizimodu berria kausituko dituzten aldaketei ahalik eta eragozpen txikiarekin moldatzeko metodo sistematiko eta egituratua da.

Premia bereziak dituzten pertsonen transizioari dagokionez, zera esan beharra dago, kooperazio-prozesua osatu behar dutela. Alor horretako planifikaziorik egokiena zerbitzuak ematen dituzten pertsonen bultzatu beharreko diziplinarteko ikuskera da. Horren helburua ondokoa da: urritasunak dituen pertsonaren garapena ahal bait gehien bultzatzea, ahalik eta muga gutxien jarrita gainera, familiak, eskolak eta elkarteko agenteek ikasle urrituarekin batera eta horren izenean hartutako erabakietan oinarritutako zerbitzu egoki eta mesedegarriak eskainiz.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteek heldutasunera heltzeko transizio-prozesua zuzen burutu dezaten, honako elementu hauek hartu behar dira kontuan:

- 1.- Transizioaren planifikazioak, ikasle bakoitzari dagokiona izan ez ezik, programatua eta sistematikoa da.
- 2.- Transizioa planifikatzerakoan, eskura ditugun tokiko aukerak hartu behar ditugu kontuan. Transizioaren planifikazioa benetan eraginkorra izan dadin, etengabeko informazio-elkartrukea bultzatu behar da eta tokiko nahiz eskualdeko agenteen lankidetzak sustatu. Horretarako, ordea, eskolako laguntzako zerbitzuek eskolaren eta elkarteko zerbitzuen arteko bitartekari gisa ihardun behar dute nahitaez.
- 3.- Transizioaren planifikazioa diziplinarteko erantzukizuna da. Ikastetxeetako eta Osasun-zentroetako, administrazio, gizarte-laguntzako eta abarreko pertsonalak lankidetzan aritu behar du.
- 4.- Transizioaren planifikazioa epe luzerako prozesua da. Gurasoek bertan parte hartzea ezinbestekoa da.
- 5.- Transizioaren plangintza ikasleak ikastetxea utzi baino 3 edo 5 urte lehenago hasi beharko da, hots, Zereginen Ikaskuntzarako Programan murgildu bezain laster.
- 6.- Transizioaren planifikazioak bizimolde baten planifikazio-prozesua da. Osasun-zerbitzuek eta gizarte-zerbitzuek islatutako premiak kontuan izan behar dira transizioa planifikatzerakoan, bizitzako proiektuak, lanbide eta gizarte-igurikapenak eta eguneroko bizitzako jolasak prozesu honetan inplikaturiko alderdiak dira eta.
- 7.- Urritasunen bat duten ikasleen transizioaren planifikazioari heldu ohi dioten lehen agenteak ikastetxeko langileak dira. Ikastetxeko langileak egunero dituzte harremanak ikasle urrituarekin, haren ikasketa-prozesua nahiz gizarte eta lanbide-prozesuak behatu eta gidatzen dituzte. Ikastetxeko langileek burutzen dituzten ebaluazio formalek nahiz informalek eginkizun garrantzitsua dute hobetu edo aldatu behar diren arloei buruzko aholkuak emateko orduan, transizio-prozesua arrakastaz burutzeko lehen mailako elementuak direlarik.

8.- Transizioaren planifikazioa, bukatutako ekintza baino gehiago, prozesu bat da. Neurriak hartu behar dira esku-hartzerako taldeen artean komunikazio jario etengabea egon dadin (eskolaren eta gizarte-zerbitzuen nahiz lanbide-zerbitzuen artean etab.), eta, halaber, zerbitzuen kontrol eta mantenimendurako erantzukizunak mugatzen dituen plan bat ere landu behar da.

Transizioaren Planifikazioaren faseak

Transizioa planifikatzerakoan egin beharreko lehen urratsa ebaluazioa da, ebaluazio formala nahiz informala, alegia. Subjektuaren egoera fisikoa, mentala, emozionala, lanbide-heziketa etab. behatzean datza ebaluazioa.

Lehen fase honetan, gazteak bizitzako hainbat arlo eta ihardueretan (lanbide-arloan, eskolan, etxean, osasun-alorrean, aisialdi eta astialdian, etab.) duen garapen-maila abiapuntutzat hartu eta premien berri biltzen dituzten zerrendak egin behar dira. Laguntza eta aholkuak emango dizkion Ikastetxeko Orientatzaileak edo eta PATEko Talde Profesionalanitzeko kideak transizio-prozesuan parte hartuko duten edo parte har dezaketen agente desberdinekin (gizarte-zerbitzuekin, lan-zerbitzuekin, zerbitzu soziokulturalekin, etab.) biltzeko uneak proposatzeko eginkizuna dute.

Hona hemen bileren helburuak:

- Gazteari buruzko informazioa guztien artean eztabaidatzea; taldeko kideen hausnarketak eta iruzkinak joritzeko dituzte datu horiek. Informazio hori dela-eta, gauza bat bermatu behar dute bileretan parte hartzen duten profesionalek, esandakoa konfidentziala izango dela, alegia.
- Identifikaturiko premiak direla-eta, lehentasuna dutenak zehaztu behar dira bileretan, beti ere ikasle bakoitzaren egoera pertsonala nahiz eskolakoa etab. kontuan hartuta.
- Prozesu guztiak nolabait lotu eta transizio-prozesua koordinatuko duen pertsona izendatuko dute partaideek bertan.
- Transizio-Planean bilduko diren edukinak landuko dira. Plan horretan garapen eta ikaskuntzarako xede eta orientabide orokorrak finkatuko dira, halaber, eta esku hartzeko planak egiteko erantzukizunak banatu ez ezik, plan horiek burutzeko epeak ere ezarriko dira.

Subjektuarekin eta horren familiarekin transizio-prozesuan zenbateraino parte hartuko duten itundu behar da, aurrerantzean hartu beharreko konpromisu, orientabide eta ekimenak zehaztu, azken batean.

*Transizioaren planifikazioko bigarren fasea, alde batetik, ikasleei erakundeen beharkizunak asetzeko eta, bestetik, erakundeei ikasleen eskakizunak betetzeko *banakako plan* bat bultzatzean datza. Helburu hori lortzeko erabili ohi diren hiru estrategia arruntenak ondoko hauek dira: subjektuen premiak asetzeko adina baliabide ez duten arloak zuzentzea, orekatzea edo saihestea.*

Transizioaren planifikazioko hirugarren fasea plana praktikan jartzeko unea da. Subjektuaren etxekoan eta elkarteko baliabideen arteko ahalegin koordinatua eskatzen du hirugarren fase honek, ezinbestekoa baita ahalegin hori arlo gatazkatsuak zuzendu, orekatu edo saihesteko. Diziplinarteko ikuskera izatea komeni da, arlo guztiak egoki bideratzen direla eta baliabideak behar bezala erabiltzen direla ziurtatzeko.

Banakako Transizio-Plana praktikan jarri ahal izateko, beraz, esku-hartzea finkatzen duten Programak prestatu behar dira. Programa horietan ondokoek agertu behar dute besteak beste:

- Ikaskuntzaren berariazko helburuek. Helburu horiek behagarriak eta neurgarriak izan behar dute.
- Esku-hartzerako estrategiek, honako hauek zehaztu behar direlarik bertan: nork, noiz eta nola burutuko dituen.
- Ebaluaziorako metodoak.

Transizioaren laugarren fasea ebaluazioak osatzen du. Praktikan jarritako planarekin eta eskura ditugun baliabideekin subjektu baten premiak zenbateraino asetu ote diren zehazten dugu azken fase honetan. Transizioaren planifikazioaren etapa desberdinek elkarren arteko lotura estua dute, hots, "continuum" bat osatzen dute.

Diziplinateko agenteek noizean behin elkartu behar dute (hiruhilero, kurtsoan behin, etab.) ikasleak izan duen bilakaera baloratzeko. Ikusitakoaren arabera, jarraiketa-prozesuarekin aurrera segitzea edo Planeko fase desberdinak praktikan jartzea erabakiko dute.

Elkarteko sare guztiak (eskola, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, lan-zerbitzuak, zerbitzu soziokulturalak, etab.) elkarren artean loturik egotea litzateke bikainena, baina, hori ez da posible beti; hala ere horrek ez du indarrek gabe uzten prozesuaren beharra. Hasieran behintzat, irakasle-taldearen esku utz daiteke planaren diseinua, alabaina, hala izanik ere, gero eta bilera gehiago bultzatu behar dira Gizarte-Zerbitzuetako zerbitzu espezializatuekin edo funtzio horiek beren gain dituzten gizarte-entitateekin.

Diziplinarteko izaera duten Banakako Transizio-Planak praktikan jarritz gero, lankidetzaren indartu egingo da. Plan horien erabilgarritasuna ere transizio-bidean dauden eta hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteentzako hezkuntza-proposamenen erabilgarritasuna frogatu ahala egiaztatuko da.

Zentzu horretan, profesionalek eta Pedagogi Aholkularitegietako Talde Profesionalentzako prozesua dinamizatu eta nolabait araupetzeko duten eginkizun hori elkarteko beste agente batzuekin bitartekotza-zubi garrantzitsua izan ez ezik, hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteentzat landutako Banakako Transizio-Planak esperimendu, landu, garatu eta horien jarraiketa egiteko euskarri benetan baliotsua ere bada.

II ZATIA

6.- ZEREGINEN IKASKUNTZARAKO PROGRAMA

6.1.-Xedeak.-

Zereginen Ikaskuntzarako Programa hezkuntza-premia bereziak izan eta Irakaskuntza Ertainetako eskolatze arruntean sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonen zuzentzen zaie eta lan-munduan sartzeko nahiz heldutasunera heltzeko prestakuntza sustatzea du helburu.

Prestakuntzarako baliabide horren bidez burutiko atzerapena duten gazteek arlo pertsonalean, sozialean eta lanaurrekoan gaitasun osoz eta modu eraginkorrean iharduteko trebatzea lortu nahi da.

6.2.- Helburuak.-

Hona hemen Zereginen Ikaskuntzarako programan bultzatu nahi diren helburuen berri:

- 1.- Ezagutza, trebetasun eta jarrera jakin batzuk bultzatzea, gizarte-gaitasuna areagotzeko, elkartean ongi moldatu ahalizateko, norbere burua zaintzeko eta eguneroko problemak ebatzi ahal izateko.
- 2.- Lanurreko gaitasunekin eta heldutasunera nahiz bizitza aktibora igarotzeko estrategiekin zerikusia duten ezagutza, trebetasun eta jarrera-multzoa bultzatzea.
- 3.- Ikasteko oinarritzako trebetasunen hezkuntza areagotzea

6.3.-Hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteekin Lan Egiteko Printzipioak

Horrelako programak abiarazteko printzipioetariko batzuk ondoko hauek dira:

- a) Curriculum funtzionala
- b) Elkartean oinarritutako heziketa
- c) Zerbitzu ezberdinen laguntza
- d) Lan-mundurantza
- e) Transizio-prozesuaren planifikazioa

a) CURRICULUM FUNTZIONALA.-

L. Brown-en hitzetan, "hezkuntza-premia bereziak dituen pertsona batek ekintzaren bat burutzen ez badu, beste batek burutu beharko du haren ordezt; hori da funtzionaltasuna".

Kontzeptu hori kontuan hartuta, berebiziko garrantzia du ikaskuntza funtzional sorta handi bat eskura izatea, pertsona batek bere kabuz gauza ugari egiten badaki, are gehiago baloratu eta errespatutako dute gainontzekoek, eta aukera gehiago izango du elkartean integratzeko.

Hasierako puntu honek eragin ikaragarria du hezkuntzan izango diren helburuak hautatzeko orduan, zeintzuk diren funtzionalak eta zeintzuk ez erabakitzeke orduan, alegia. Nolanahi izanik ere, hezkuntza-testuinguruan funtzionalak ez diren ikaskuntzak ere sartu behar dira, eskuratuz gero, izugarri laguntzen baitigute bizi-kalitatea hobetzen. Horrelako ikaskuntzak dira, esate baterako, aisialdi eta jolaserako iharduerak. Era berean, hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteek ikasgela arruntetan parte hartuz gero, beste jokabide-eredu batzuk eskuratuko dituzte eta askoz errazagoa gertatuko zaie besteekin harreman berri eta positiboagoak izatea, besteak beste.

b) ELKARTEAN OINARRITUTAKO HEZIKETA.-

Urritasunen bat duten ikasleei etorkizunean inolako urritasunik ez duten kideekin elkar bizitzen ikasteko aukerak emanda, xede hori lortzeko beharrezkoak diren pertsonarteko gaitasunak eskuratzeko tresna ezinbestekoa bilakatzen da prestakuntza eskolatzearen azken urteetan. Lanurreko edo eta lan-arloko irakaskuntza-iharduerak planteatu ez ezik, etxeko, elkarteko nahiz astialdi-alorreko gaitasun funtzionalak bultzatzeko prestakuntzazko edukinak ere barne bildu behar ditugu gure hezkuntza-proiektuetan.

Hori horrela, ikasketei dagokienez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek ahalik eta denbora gehiena igaro behar dute hezkuntza-ingurune arrunt batean; are curriculumean ikasketa-arloak eta ikasketaz kanpoko elementuak bildu behar dira, elkartean gizarte-bizitza egokia izateko ezinbestekoak diren portaerak eta trebetasunak sustatuko direlarik batik bat, hala nola: garraiabideak nola erabili, hirian nola ibili, astialdia nola erabili, gizarte, kultur, osasun eta abarreko zerbitzu normalizatu eta berariazkoak nola erabili, laguntza edo aholkua nola eskatu, erabilpen pertsonalerako objektuak nola eskuratu, lana nola bilatu, adiskidetasun-harremanak nola hasi eta iraunarazi, etab.

c) ZERBITZUARTEKO LANKIDETZA.-

Eskolatik lan-mundura igarotzeko transizio-programek, hezkuntza-sisteman eragindako aldaketez gain, ikasleak lanerako prestatzean baitatzate, zona bateko egitura sozio-komunitarioekin eta lan-egiturekin elkarlanean aritzera bultzatzen gaituzte ezinbestez.

Zona bateko gizarte eta lan-alorreko agenteak baterabilduta egote horrek burutu beharreko programa desberdinak ordenatu eta orientatzeko balio du. Zerbitzu bakoitzaren protagonismoa aldatu egingo da pertsona bakoitzak hazkuntza-prozesuaren bilakaeran duen aldi bakoitzaren arabera.

Zona bateko gizarte-ehundura osatzen duten elementu guztien arteko elkarreraginak eta koordinazioak urritasunak dituzten pertsonak normalizazioaren eta integrazioaren bidean jartzeko dagoen arrakastarako faktore nagusia osatzen dute.

d) LAN-MUNDURANTZA.-

Hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteak lan-ingurune ahalik eta normalizatuenean lanean hastea lanbideratze egokia izateko prestakuntza-aldi ororen ondorio logikoa izango litzateke.

Heldu bilakatzeko prozesuaren funtsezko ataletariko bat, beste eredu batzuk oinarri gisa hartu eta gizarte-jarrerak ikasteko modu bat, independentzia ekonomikoa izateko bidea, alegia, lanpostu bat edukitzea da. Lanpostu bat izanez gero, pertsonak halako kategoria edo balorazio bat hartzen dugu; horretaz gain lanak funtzio psikologiko batzuk ere baditu, hona hemen zenbait:

- Autoestimua, erantzukizuna, duintasuna izateko eta gizarteko kide heldutzat hartzeko balio du.
- Elkartea bateko kide aktibotzat jotzeko modua ematen du.
- Gizarte-harremanak ugaltzeko aukera ematen digu.
- Egunaren egiturari nolabaiteko erregularatasuna ematen dio. Hori oso garrantzitsua da gehienontzat, batez ere hezkuntza-premia bereziak dituztenentzat.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteen transizio eta lanbideratze-prozesua osatzen duten aldagaietara hurbiltzea nahiko konplexua da, hezkuntza, lanbide eta gizarte-alorreko osagaiak parte hartzen baitute bertan. Gainera, pertsonen ezaugarriak, prestakuntza-prozesuen antolamendua eta egokitasun-maila, lanpostuaren eskakizunak, beharrezko baliabideak eta lan-mota bakoitza burutzeko hamaika portaera hartu behar da kontuan.

e) TRANSIZIO-PROZESUAREN PLANIFIKAZIOA.-

Banakako Transizio-Plana (BTP) pertsona jakin bati zuzendutako programa bat da. Plan horretan pertsona hori ikasten ari dena eta etorkizunean egingo duena erlazionatuta daudela ziurtatzen da, laguntzako premiak eta horien intentsitatea aurrakusten direlarik bertan. Horretaz gain, kontuan hartu behar da ikasleak berak, bere familiak, hezkuntza-zerbitzuek eta baita helduen zerbitzuek ere hezkuntzan parte hartuko dutela bermatu behar dugula planean.

"Transizio-aldiaren" planifikazioa prozesu erabat konplexua da, hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteek derrigorrezko eskola-aldia bukatutakoan ez baitira bestelako instantzia edo helduen zerbitzuetara igaro behar soilik. Transizio horrek elkartean iharduten duten sareen koordinazioa eta lankidetzaren eskatzen du, hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteak oinarrizko prestakuntza izaten jarraitzeko baliabideak izan ditzaten eta.

Hasierako fase honetan, koordinazioa ikastetxeak bereganatzen du, bai gazteen heldutasuna lantzeko, bai egitura eta hezkuntz proposamenak dituelako.

6.4.-Zereginen Ikaskuntzarako Programaren Egitura

Zereginen Ikaskuntzarako Programa gauzatzeko oinarrizko baliabidea Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelak dira. Oro har, ikasgela horiek Bigarren Irakaskuntzako ikastetxeetan kokatu ohi dira.

Subjektuen ezaugarri pertsonalen, hezkuntza-testuinguruaren nahiz elkartean ezaugarri berezien eta ikasleek lan-munduan sartzeko dituzten aukeren arabera, prestakuntza-ziklo bitan eta lan-hastapeneko praktika-aldi batean bana daiteke programa, kasuan kasuko BTPan egoki dela iritziz gero, noski.

Hori horrela, aipatu hiru aldiak ondokoak izan daitezke:

1. Zikloa: Oinarrizko Ikaskuntzak
2. Zikloa: Berariazko Ikaskuntzak
Lantokietako prestakuntza

Zikloek zenbat iraungo duten erabakitzeke honako hauek hartu behar dira kontuan:

Ikasleen ezaugarriak: Zenbait ikasleren hezkuntza-garapenari erreparatuta, oinarrizko ikaskuntzak soilik barne biltzen dituen prestakuntza-diseinua egokia dela pentsa dezakegu. Beste zenbait ikasleren garapen-prozesua kontuan izanda, ordea, Berariazko Ikaskuntzak lantzeko bigarren zikloarekin hastea komeni dela ohar gaitezke.

Eskura daukagun ekipamendua: Ikastetxeren batean ikasgela bat baino gehiago erabiltzeko aukera izanez gero, bat oinarrizko ikaskuntzak lantzeko eta bestea berariazko ikaskuntzak jorratzeko erabil ditzakegu.

Enplegurako baliabideak edo iharduera jakin bat burutzen duten babestutako enplegurako zentroak izanez gero, agian ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten zereginak ikasteko programa bereziak landu daitezke.

Ikasleak programan sartzeko adinak: Zereginen Ikaskuntzarako Programa 16 urterekin hasi eta 19rekin bukatuko dute bertan murgiltzen diren gazteek.

Transizioko prestakuntza-prozesua noiz hasi duten eta bertan zenbat denbora egon daitezkeen kontuan izanda eta zenbait gaitasun zenbateraino garatu dituzten ikusita,

ziklo bakoitzak iraupen desberdin eta aldakorrez planteatzea komeni da. Era berean, gaitasunak ebaluatu ostean, ikaskuntzak oinarrizko zikloan ala bereriazko zikloan landuko ote diren erabaki behar da.

1. Zikloa: Oinarrizko Ikaskuntzak

Oinarrizko Ikaskuntzak landuko diren ziklo honek ondoko helburuak ditu:

- Ikasleen prestakuntza zabaltzea, oinarrizko hezkuntzako berezko gaitasunak eskuratzeko, ikasleak bizitza aktiboan sartzeko aukera izan dezaten.
- Dituzten gaitasunekin edo eta igurikapen pertsonalekin bat datozen lanbide-iharduerak edo okupazioak izateko gazteak prestatzea.
- Heldutasun pertsonala bultzatzea eta indartzea, gizarte bizitan eta lan-munduan parte hartzeko modua emango dieten azturak eta gaitasunak sustatuz.

Estraineko ziklo honetan lau prestakuntza-eremu daude, hots:

- 1.-Komunikazioaren eremua
- 2.-Autonomia Pertsonalaren eremua
- 3.-Gizarte trebetasunen eta Elkarteratzearen eremua
- 4.-Lanerako oinarrizko prestakuntzaren eremua.

Zereginen Ikaskuntzarako Programaren lehen ziklo honetan, halaber, kontuan izan behar da ikastetxea kokatuta dagoen inguruneko produkzio-mundua. Bestalde, eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek lanean hasteko aurkitu ohi dituzten eragozpen bereziak aintzat hartuta, komenigarria dirudi enplegurako zentro berezien errealitatea eta ikastegien errealitatea lotzea.

Lanerako oinarrizko prestakuntza edo oinarrizko ikaskuntza ondokoa da: normalean landu ohi diren zereginen artean oinarrizkoenak edo sinpleenak barne biltzen dituen prestakuntza. Aipatutako iharduera horiek lanerako zentroetan eta enplegurako zentro berezietan burututako amankomunak dira, eta baita horrelako gazteentzako egokiagoak diren bestelako lan-modalitateetan, hala nola, lan autonomoetan, lagundutakoetan, barrendegietako lanetan eta azpikontratetan burututako amankomunak ere.

Hona hemen zeregin horien berri: moztu, tolestu, zulatu, egiaztatu, lotu, identifikatu-antzeran, hautatu-aukeratu-diskriminatu, lisatu-zuzendu, kolpatu, gantzatu, pintatu, atera-erazi, neurtu, trazatu, limatu, zenbatu, sailkatu, karraskatu, zerratu, presionatu-sakatu, iltzatu, leundu, torlojotu, baheztatu, busti, nahastu, soldatu, oratu, etab. Normalean zeregin horiek lanbide-perfil batzuetan erabiltzen dira batik bat, hala nola, bustingintzan, lorazaintzan, metalgintzan, modelatuan, enkoaderazioan, jantzigintzan, elektrektrizitatean, zapataritzan, zurgintzan, garbiketean, sukaldaritzan eta abarretan.

Oinarrizko zereginak ikasteko lan zehatz eta errealak erabili behar dira, zeregin eta eragiketa desberdinak barne biltzen dituzten iharduerak finkatu behar dira eta horien konplexutasuna subjektuaren nahiz ikasle-taldearen ezaugarrien arabera ezarri.

Antolamendua modu askotakoa izan daiteke. Alde batetik lanbide-perfil jakin batzuetako oinarrizko trebetasunak lantzeko balio duten txandakako tailerrak antolatu daitezke. Bestetik, funtsezko zeregin eta eragiketak jorratzen dituzten produktuak sortzeko iharduerak burutu daitezke. Nolanahi ere, oinarrizko ikaskuntzak egituratzeko beste edozein formula erabil

daiteke nahi izanez gero, baina, beti ere, guztiz errepikakorrak diren iharduera zentzugabeak saihestu behar dira eta subjektuarentzat nolabait garrantzitsua eta esanguratsua den produktu bat, sinplea edo konplexuagoa izan daitekeena, aukeratu.

Zikloaren hasierako lehen aldia erabat garrantzitsua da gazteak eskolatzeak iraun bitartean landu beharko duen Banakako Transizio-Programa zehazterakoan. Lehenaldi horretan denbora nahikoa eman behar dugu hasierako ebaluaziorako prozesuak garatzen eta burutzen, Programaren gainerako aldietarako jarraipideak ezarri nahi baditugu behinik behin.

2. Zikloa: Berriazko Ikaskuntzak

Bigarren zikloa oinarrizko ikaskuntza batzuk ongi finkatuta dituzten gazteei zuzentzen zaie, lanbide-perfilarekin zerikusia duten berriazko ikaskuntzak sakontzeko moduan baitaude.

Bigarren ziklo honek amaierako izaera du. Asmo nagusia zera da, gazteei lan-munduan sartzen laguntzea, lanbide bat burutzeko teknikak eta ezagutzak luzatuz. Bigarren ziklo honetan ikasitakoak oinarrizko lanbide-heziketan jasotako lanbide-prestakuntzaren azpitik daude.

Irakatsiko diren berriazko ikaskuntzak hautatzeko orduan, kontuan izan behar da ikastetxea kokatuta dagoen zonako lan-eskaintza. Ikaskuntza horiek lantzeko, bestalde, enplegurako zentro bereziekin eta tokiko nahiz eskualdeko lan-entitateekin elkarlanean aritu beharra dago.

Zenbaitetan, berriazko ikaskuntzak Lanbide-Hastapenerako Ikastegietan burutu daitezke, beti ere egokitzapenak egin behar direla eta gizarteratze eta hezkuntzako baliabide honen araudi eta orientabideei doitu behar zaizkiola ahaztu gabe. Bigarren zikloan dauden ikasleek, Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelan eskuratutako oinarrizko ikaskuntzak ongi finkatuta edukiz gero, Lanbide-Hastapenerako Ikastegietan (LHIK) burutu ditzakete Berriazko Ikasketak azken kurtsoan.

Ziklo hau honako hiru prestakuntza-eremu hauek osatzen dute:

- 1.-Oinarrizko prestakuntzaren eremua: Autonomia pertsonala eta komunikazioa (aurretik ikusitakoa sakontzea).
- 2.-Gizarte-trebetasunen eta elkarteratzearen eremua (lanerako prestakuntza eta orientabidea).
- 3.-Lanbide-alorreko berriazko ikaskuntzen eremua.

Bigarren zikloan kontuan hartuko dira batik bat gazteak lanpostu batera hurbiltzen dituzten eskolaz kanpoko ekimen edo eta iharduera osagarriak, ikasleei eta horien gurasoei lan-egituren berri emango zaielarik xede hori lortu ahal izateko.

Garrantzia emango zaio, halaber, gazteen autonomia pertsonala bultzatzeari, toki guztietara, eskolara nahiz lanera egin beharreko joan-etorriak beren kasa egiten laguntzeko asmoz.

Era berean, lanbide-hastapenerako aldi bat ere finkatu eta burutuko da, inguruko enpresetan praktikak egingo direlarik. Praktika-aldiak hasi aurretik, oster, subjektuak berak eta bere familiak nahiz enpresek dituzten ezaugarriak baloratuko dira, praktikak enpresa arruntetan, laguntzako sekzioak dituzten enpresetan, enplegurako zentro berezietan edo, bestela, lanerako zentroetan burutuko ote dituen erabakitzeko.

Zereginen Ikaskuntzarako...

Helburu hori gogoan, gizartea sentsibilizatzeko, enpresariak mentalizatzeko eta tokiko lan-ekimenak nolabait gureganatzeko iharduerak burutuko ditugu, tokiko erakunde, mankomunitate, lurralde-entitate eta abarrekin zerikusia duten enplegu-emale publikoekin harremanetan jarriko garelarik. Horretaz gain, ikasleekin lan egingo dugu (laneko egoera errealean gertatu ohi direnen antzeko egoerak planteatuko dizkiegu) eta baita gurasoekin ere, portaera-jarraipideak eskaini ahal izateko, azalpenak emateko, laneko praktikak egitearen alde jartzeko eta, azken batean, lan-munduan sartzearen aldeko jarrera positiboa sortarazteko.

Lantokietako prestakuntza

Berriazko Ikaskuntzak lantzeko bigarren zikloak eskola eta lan-mundua lotzen ditu nolabait, lantokietan praktikak burutzeko aukera ematen baitu. Hezkuntza-premia berezien mailak ezarritako baldintzak kontuan hartuta, praktikak Enplegurako Zentro Berezetan, Lanerako Zentroetan edo enpresa arruntetan egin daitezke, lagundutako lanak nahiz lan autonomoak burutzen.

Lanbide-hastapenerako praktikek produkzio-mundu errealekin lotutako lan-egoerak barne biltzen dituzte, enpresetako eta lanpostuetako ekipo, aparatu eta informazio errealak erabiliko direlarik bertan.

Enpresako prestakuntza-aldi horretan landuko diren edukinak pentsatzerakoan, iharduera, lanpostu edo zeregin errealak hartu behar dira oinarri gisa, alabaina ez da ahaztu behar praktika horiek prestakuntza eskuratzeko direla.

Prestakuntza-ihardunaren izaera osagarri horri esker, lanpostu erreal bati dagozkion prozedurazko eta jarrerazko ezagutzak eskuratu daitezke. Halaber, Eskola-testuinguruan burututako zereginen ikaskuntzak orokortzeko aukera dugu, hein handi batean behintzat.

Enpresako praktiken proiektua eta programazioa ikastetxeko tutoreak edo, egon ezean, Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelako tailer-maisuak eta produkzio-guneko Prestatzaileak landuko dituzte; era berean, horiei dagokie jarraiketa-lanak egitea. Bi agente horiek egoki koordinatuta badaude programak arrakasta izango du eta behar diren aldaketa guztiak sartzeko aukera izango da, programa bikainduko delarik arian-arian.

Praktiketako plana eta eskolan eragingo dituen ondorioak jakinarazi behar zaizkie interesatuei. Nolanahi izanik ere, lanpostu errealean egingo diren praktika horiek kontuan izan behar dira beti, mugatuta daudenez gero (ezin baitute 450 ordu baino gehiago hartu), eta Zereginen Ikaskuntzarako ikasgelako azken kurtsoko curriculuma horien arabera planifikatu.

Ikasleen ezaugarriek eta lanpostuan burutu beharko dituzten zereginiek erakutsiko digute zer-nolako trebetasunak indartu behar ditugun lan-doikuntza arrakastatsu garatzeko. Oro har, trebetasun horiek ondokoak dira:

- Erremintak erabiltzen jakitea
- Mugimenezko koordinazioa
- Arreta
- Aginduak ulertu eta betetzea
- Zereginen erritmoaz jabetzea eta ordutegia betetzea
- Arauak onartzea

Hala ere, lanbideratze-prozesuan arrakasta izateko baldintza bakarra ez da industri produktuak sortzeko nahiz zerbitzu jakin bat emateko trebetasunak eta abildadeak garatzea, horretaz gain guztiz garrantzitsuak dira jokabidearekin, gizarte-gaitasunekin eta arau nahiz balioak eskuratzeko gaitasunarekin zerikusia duten alderdi guztiak.

7.- ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK ETA ANTOLAMENDURAKOAK

Zereginen Ikaskuntzarako Programek hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen gizarteratzea eta lanbideratzea bultzatu behar dutenez, independentzia ahalik eta handiena, lanbide-prestakuntza egokia eta gizarte-trebetasunak lor daitezen bideratzea izango da bertako hezkuntzako esku-hartzearen ardatz egituratzaileen eginkizun nagusia.

Transizio-programek bizitzarako prestakuntza eman behar diete gazteei, elkarteko heziketa, eta, ahal den neurrian, lantokietako heziketa bultzatuz. Bi arloetan gizartean moldatzeko gaitasunak, ezagutzak garatzeko gaitasunak, lanbideren bat burutzeko gaitasunak eta astialdiarako gaitasunak areagotzen saiatu beharra dago.

Curriculumetan lehentasuna izan behar dute nortasuna garatzeko, gizartean ongi moldatzeko eta lanposturen bat eskuratzeko benetan funtzionalak diren ikaskuntzek. Hori lortzeko, ezinbestekoa da trebetasun praktikoak eta ikasketa-alorreko trebetasunak batzen eta indartzen saiatzea.

Goiko paragrafoetan aipatutako lerro orokorrak ondoko ataletan zehaztuko ditugu, curriculum arruntak irakaskuntza ertainetako ikastetxeetan dabiltzan gainerako gazteekin izango duen partaidetzaren intentsitatea finkatuko dugularik.

7.1.- Hezkuntza-edukinen hautaketa

Dirudienez, hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen prestakuntza-prozesua osatzeko sistemarik eraginkorrena heldutasunera iritsitakoan guztiok kausitzen ditugun premiak asetzea helburu gisa duen curriculuma eratzea da. Curriculum horretan bildu beharreko egoerek -premien intentsitatea alde batera utzita- lanarekin, aisialdi eta astialdiarekin, autonomia pertsonalarekin eta gizarteratzearekin zerikusia dute.

Horrelako premiak aintzat hartzen dituen curriculum orok kategoriatan zatitzen ditu iharduera guztiak eta horien barruan, egun nahiz etorkizunean, gizarteratze egokia izateko behar diren trebetasun guztiak biltzen.

7.2.- Curriculum arrunteko edukin, espazio eta denbora berak erabiltzeko irizpideak.

Ikaskuntzen funtzionaltasunaren ikuspuntutik begiratuta, Ikasgela dagoen Irakaskuntza Ertainetako ikasle arrunten curriculum, espazio eta denbora berberak izatea komeni ote den ikusteko baliagarriak izan daitezkeen irizpide batzuk ezarri behar dira.

Guztien artean nagusitzen den irizpide bat badago. Ikasleei ondoren aipatuko ditugun bi dimentsioetariko batean zein bietan kokatzen diren ikaskuntza funtzionalak luzatzean datza irizpide nagusi hori. Alde batetik, herritar nahiz langile gisa garatzeko behar dituzten ikaskuntza erabilgarri eta esanguratsuak eta, bestetik, urritasunen bat duten gazteei urritasunik ez dutenekin harreman positiboak izateko modua eta, alderantziz,

urritasunik ez dutenei hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteekin harreman positiboak izateko bidea emango dieten gizarteratzeko elementuetan oinarritzen diren ikaskuntzak luzatzean, alegia.

Aipatutako irizpide nagusi horietariko edozein da baliagarria hein batean gainontzeko ikasle arruntekin batera landuko diren ibilbide pertsonalak edo indibidualak ezartzeko.

Dena den, norabide horretan gauza bat planteatu beharra dago, hots, curriculumean bildutako edukin edo planteamenduen aldetik kultur zama handia, abstrakzio-maila handia eta ikasleak nekez barneratzen dituen informazioak biltzen dituzten irakasgaiak guztiek ikasi behar izana, beste irakasleren batek laguntza emanda ere, ikaslearen banakako programa burutzeko egokia izango ote den.

Edo bestela, irakasgaiak eta jakintzagaiak ikasgela arruntean, ikasleari datu ulergaitzak azaltzean datzan metodologia ez oso aktibo bat erabilita irakastea erabilgarria nahiz gizarteratzea bultzatzeko egokia izango ote den eta eta espazio edo denbora berberak erabiltzea justifikatzen ote duen pentsatu beharra dago.

Edukinak eta metodologiak ikasle guztientzako iharduerak ahalbidetzen dituzten arloak dira ikasle guztiek, hezkuntza-premiaren bat dunetenen barne, lantzeko egokienak, erabilgarrienak diruditenak, erritmo, interes eta sakontasun-maila desberdinak barne biltzen dituzten arloak, hain zuzen ere.

Zenbait LTP, Oinarrizko Teknologiak, Natur Zientzien edo Gizarte-Zientzien ikuskera batzuk, Gorputz-Hezkuntza, Arte eta Musika-Hezkuntzak, Informatika, mota guztietako Tailerrak, eta iharduera osagarrietariko nahiz eskolaz kanpoko ihardueretariko asko integrazio egokia ahalbidetuko duten testuinguru egokiak dira, ikaskuntza esanguratsu eta funtzionala bultzatzeko bide benetan apartak.

Curriculum, espazio eta denbora berberak erabiltzeaz gain, irakasle berberak ere izan ditzakete gazte guztiek. Horrelakoetan, alde aurretik itundutako programa oinarri gisa hartuta, irakasgaiaren Irakasle Titularrak eta Laguntzako Irakasleek batera dinamiza dezakete saioa, taldea bana dezakete, iharduerak mailen edo interesen arabera garatu etab. Alabaina, horretarako koordinazio estua izan beharko lukete, programazioa elkarrekin prestatu beharko lukete. Lankidetzan arituz gero, metodologia eta irakasteko bide berriak proposatu ez ezik, profesionalen arteko kooperazioa izaugarri bultzatuko lukete ez bairik gabe.

Haatik, sarritan, asmo onak izan arren, elkartasun-eza aurkitu ohi dugu aurrez aurre, komunikazioa izateko gogo falta. Zenbaitetan ez da ulertzen ikastetxeko ikasleek gizarteratean sartu eta eguneroko bizitzan parte hartu behar dutela, eta ez da horretarako bide egokirik jartzen. Gizarteratzea bultzatzeko eta azaldu berri ditugunak bezalako jarrerak saihesteko, sentzibilizazio eta trebakuntza-ekintzak bultzatu behar dira nahi eta nahi ez, irakasleen, ikasleen, familien eta elkarte osoaren laguntza eta elkartasuna indartzeko, zenbait urritasun duten gazteek besteen espazio eta denbora berak erabiltzeko eta esperientzia berak bizi ahal izateko ere.

Integratio eta gizarteratze-prozesuak norabide bikoitzean bideratzeko beste modu bat (ikasle arruntei eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei aplikatzeko bezalako) ondokoa izango litzateke: alde aurretik ezarritako programa bat oinarritzat hartuta guztiekin espazio, denbora eta zereginen ikaskuntzarako ikasgelako baliabide materialak eta pertsonalak erabiltzea. Gauzak horrela, ikasle arruntek ere Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelan erabiltzen diren ekipamenduak erabiliko litzakete tailerreko

ihardueretan, eguneroko bizitzarako trebatzeko baliagarriak diren ihardueretan eta, etxeko lanak egiten ikasteko ihardueretan, oinarrizko teknologiako ihardueretan eta hainbat aukerako ihardueretan.

7.3.- Estrategiak eta metodologi printzipioak

Hona hemen hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak edozein Irakaskuntza Ertainetako ikastetxetan egoki integratuko direla ziurtatzen duten zenbait alderdi:

- Heziketaren **indibidualizazioa** eta ikasle bakoitzaren gaitasunetan oinarritutako ebaluazio indibiduala.
- Irakaskuntzako ebaluazio-bide **guztiak** era **malguan** erabiltzea.
- Ikastetxeko orientabide eta laguntzako zerbitzuekin **lankidetzan eta koordinazio estua izanda** aritzea.
- Ikasleen errendimenduari dagozkion **alderdi positiboak** azpimarratzea.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruzko eguneratutako ikuspegi batetik begiratuta, irakasle gisa gure ikasleei eman ohi diegun laguntza egokitzean datza metodologia didaktikoa, alde zuzenetik ezarritako helburu batzuk lortzeko eta ikaskuntzak bultzatzeko asmoz erabiltzen dugularik.

Laguntzeko formula ugari dago, irakasle bakoitzak curriculumeko elementuak eta horien arteko elkarreragina ulertzeko moduaren arabekoak, gizarte eta eskola-testuinguruaren arabekoak eta hezkuntza-premia desberdinak dituen ikasle-multzo baten arabekoak baitira metodoak. Horrenbeste aldagai egonik, bistan da oso zaila dela edozein testuinguru edo egoeratan erabil daitezkeen prozedura orokorrak finkatzea eta ikastetxeko laguntzako irakasleek izango duten esku-hartzearen maila mugatzea.

Irakasle-taldeari dagokio planteatutako hezkuntza-helburuen eta horiek lortzeko bideen arteko koherentzia bermatzea, ikaskuntza-prozesua eta ikasleen garapen-maila kontuan hartuta, hots, jada dakitena, dituzten eragozpenak, zereginaren aurreko jarrerak, motibazioak etab. kontuan hartuta, lehen esan dugunez. Irakaskuntzaren ikuskera konstruktibistaren arabera, irakasleek, ezagutzak transmititu ez ezik, gidatu egin behar ditu ikasleak eta orientabideak eman.

Metodologia egokia une egokian hautatu ahal izateko, hona hemen irakasle-taldearentzat zenbait oinarrizko printzipio orientabide gisa:

- 1.- **Ikasten den guztia ez da era berean ikasten**: Edukin desberdinen ikaskuntza aldatu egiten da edukin horien ezaugarrien arabera; edukinek ikaskuntzan beharko diren estrategiak, bideak eta tresnak baldintzatzen dituzte, beraz.

Horregatik, hain zuzen ere, **ikaskuntzen funtzionaltasuna** bermatu behar da irakaskuntza-ikaskuntza prozesu orotan. Hau da, ikasitakoa egoera errealetan erabiltzeko modukoa dela bermatu behar da. Hori ere garrantzitsuagoa bilakatzen da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan.

2.- **Guztiok ez dugu modu berean ikasten:** Anitz motako ikasleak izateak, dauzkagun ikasleak kontuan hartu eta, burutuko diren iharduerak nolabaiteko malgutasunez erabiltzea eskatzen digu.

3.- **Ikasten duguna gure garapen-mailaren arabera eta gure alde aurretiko ezagutzen arabera da:** Prozesu dikatikoaren abiapuntua zera da, ikasleak bere kabuz egiten dakiena eta luguntza emanez gero egiteko gai dena. Hori dela eta, kontuan izan behar ditugu taldearen berezitasunak eta ikaskuntza-erritmoak, metodoak eta baliabideak egoera desberdinei doitu ahal izateko.

4.- **Ikaskuntza bakarkako prozesua da, ingurunearekiko elkarreraginari esker gertatzen dena:** Konfidantza, segurtasun eta kooperazioan oinarritutako harreman-giroa sortu behar da, irakasle eta ikasleen arteko nahiz ikaskideen arteko harremanak sustatzeko.

Zereginen Ikaskuntzaren eremuan erabil daitezkeen metodologi irizpideei dagokienez, ondoko hauek aipa daitezke:

- Iharduerak burutu ahal ikastea

Hezkuntza bultzatzeko asmoz iharduera esanguratsuak burutzea erabat garrantzitsua da ikaskuntzak barneratu eta orokortzeko orduan.

Iharduera koherente ugari burutzeak ikaskuntzak egoki finkatzeko eta sekuentziatzeko bidea ematen digu, sinpleenetik hasita konplexueneraino, konkretuenetik abstraktueneraino, egoera isolatuenetik gehien orokortu daitezkeen egoeraraino hezur-mamitzeko bidea, alegia.

- Helburu jakin batzuekin zerikusia duten iharduerak burutzea

Iharduerak Banakako Programan jasotako helburuekin lotuta egon behar dute, ez dute burutze soilera mugatu behar, aitzitik, araututako intenzionalitatea izan behar dute eta ikaslearen aurrerapenak ahalbidetuko dituen prozesu baten barruan egon, testuinguru edozein izanda ere (Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela, testuinguru arrunta, etab.).

- Berezko zentzua duten lanbide-ikaskuntzako iharduerak burutzea

Lanbide-arloko abildade eta trebetasunak ikasteko, objektuak sortu, zerbitzuak eskaini eta produktuak landu behar dira. Hori eginez gero, ikasleak egindakoa estimatu eta ikaskuntza-prozesu eratzailea bultzatuko da.

Behin eta berriz errepikatzen diren eginkizunek, inolako zentzurik edo erabilgarritasun ez duten zereginak, bestalde, gogaitarazi besterik ez dituzte egiten ikasleak. Hala ere, zenbait trebetasun garatu eta barneratzeko, errepikatu egin behar dira iharduerak eta sekuentziazio egokia jarraitu, azkenean, bakarka nahiz taldean, produktu jakin bat sortu ahal izateko.

- Gizarteko eta eguneroko bizitzako egoeren simulazioak egitea

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelan eguneroko bizitzaren berri ematen duten simulazio-iharduerak burutzeko bideak aurkitu behar ditugu: etxeko bizimoduari eta higienerari buruzko iharduerak, autonomia pertsonaleko iharduerak, egoera desberdinetan moldatzen jakiteko iharduerak etab. burutzeko baliabideak izan behar ditugu bertan.

Hori horrela, ihardueren programazioak autonomia pertsonaleko ikaskuntzak eta komunikazio-gaitasunak bultzatu behar ditu, eguneroko egoeren antzeko ikaskuntza-egoerak erabiliz bultzatu ere.

Esanak esan, Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelan baliabide guzti-guztiak ez badaude ere, ikastetxeak prestakuntzarako baliabide jakin batzuk eskaintzeko modua izan behar du, guztiz ezinbestekoa baita burutiko atzerapenarekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan batik bat. Hona hemen derrigorrez izan beharreko baliabideen berri: ikaskuntza-ekintzatarako prestatutako dutxak eta higiene-zerbitzu orokorrak; sukaldaritza eta harrikoa egiteko, garbitzeko iharduerak, eskulanak, etxeko lanak, etab. egiten ikasteko leku aproposak...

- Ingurunea baliabide didaktiko gisa

Ahal den neurrian, ingurunea eta elkartearen autonomia pertsonaleko ikaskuntzak garatzeko baliabide didaktiko apartak dira. Eguneroko egoeren simulazioaren bidez errealitateara hurbiltzen ditugu ikasleak, alabaina ingurunea hori baino gehiago da, errealitatea bera da: dendak, kaleak, zerbitzu publikoak, garraioak, telefono-kabina etab. modu egokian erabili behar diren eguneroko bizitzako elementuak dira.

Prozesu honetan laguntza eska dakieke gurasoei, aisialdirako eta astialdirako borondatezko erakundeei eta elkarteko zerbitzuei, guztien artean programak bultzatzeko elkartean bertan.

- Laneko egoeren simulazioak egitea: produkzio-kateak, lan-taldeak

Praktika-aldian edo lanean hasterakoan gertatuko diren egoera errealetan ongi moldatzeko, ikasleek etorkizunean egunero aurkituko dituzten egoeren simulazioaren bitartez burututako ikaskuntza-prozesuak ezinbestekoak dira.

Prozesu honetan barne bildutako zereginak produkzio-kate batean nahiz lan-talde batean burutuko liratekeenak dira, lanen diseinua, Berariazko Ikaskuntzen Zikloan bereziki, produkzio-munduan benetan gertatzen denarekin ahal bait gehien bat etor dadin.

7.4.- Curriculum-egokitzapenak

Hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteei eman beharreko hezkuntza-erantzunak aldaketa batzuk behar izaten ditu sarritan talde arruntaren nahiz Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelako taldearen programazioarekin alderatuta.

Aldaketa horiek curriculumeko elementu guztiei dagozkie, hala nola, helburuei, edukinei, iharduerei, metodologiari, antolamenduari edo ebaluazioari. Aipatutako elementu bakar bat edo guztiak aldatuta ere, ikastetxeko profesionalek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen curriculumak zehaztu beharko dute.

Izan ere, "curriculum-egokitzapen indibidual" deritzo horri. Curriculum indibidualak egiteko, hezkuntza-premia bereziak dituen kasuan kasuko gaztearen ebaluazioa hartu behar da abiapuntu gisa, esku hartu nahi den lan-eremuan dituen gaitasunak eta ahalbideak argi eta garbi ezagutu behar baitira.

Zehatz-mehatz, ondokoak egin behar dira:

- 1.- Ikasle guztiak banan-bana baloratu, esanguratsuak diren iharduerak erabakitzeke (bakoitzaren BTPren arabera).
- 2.- Tutoreek ikasgeletan burutzen dituzten programak eta iharduerak ezagutu. Horretarako irakasle-taldeko kide guztiek elkarlanean aritu beharko dute programa diseinatu eta abiarazteko.

Curriculum-egokitzapen indibidualen **funtzioak** honako hauek dira:

- Hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleari eskaintzen zaion hezkuntza-erantzuna zehaztea.
- Hezkuntza-premiak ikasgela arruntean aldatu eta lantzeko aukera ahalbidetzea.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta eskuratutako emaitzak ebaluatzeko funtsezko erreferentzia da curriculum-egokitzapen indibiduala.
- Baliabide jakin batzuk behar izateko irizpideak finkatu eta justifikatzea.
- Irakasle-taldearen eta kanpoko hezkuntza-zerbitzuen (PAT, Ikuskaritza, etab.) arteko koordinazioa erraztea.

Gauzak horrela, ikasgela arrunterako plana abiapuntutzat hartuta, ikasle jakin horrek izango dituen helburuak, denbora, edukinak eta iharduerak finkatu beharko dira. Era berean, taldearentzat ezarritako ebaluaziorako irizpideak kontuan hartuta, ikasle horrekin erabiliko diren ebaluaziorako irizpideak ere zehaztu beharko dira.

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelan curriculum-egokitzapenen bat egitekotan, ondoko urratsak jarrai daitezke:

- 1.- Oinarri gisa lanbide-gaitasunak nahiz garapen pertsonaleko gaitasunak hartu.
- 2.- Hezkuntza-premia bereziak dituen gazteak burutu ditzakeen iharduerak eta zereginak zehatz-mehatz aztertu: bildu, ordenatu eta gainerako ikasleen lanarekin erlazionatu.

Iharduera eta zereginak zehaztu ondoren, gainerako ikaskideek landuko dituzten edukinekin erlazionatu behar dira, espazio eta denbora berberetan kokatu ahal izateko.

- 3.- Burutu beharreko iharduerak (gainerako ikaskideek egingo ez dituztenak) zehaztu.
- 4.- Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelan talde handiarekin nahiz ikaslearekin jarraituko den lan-metodologia bildu. Honakoan prozesuei (sinpleagoak, egituratuagoak, motelagoak, errepikakorrak,...) eta ikaskuntza-erritmoei garrantzi berezia eman beharko zaie.
- 5.- Azkenik, ebaluazioaren inguruko puntu guztiak erabaki behar dira (zer ebaluatu, noiz, nola, eta ikasleari nahiz horren familiari informazioa nola luzatu).

Curriculum-egokitzapen indibidualak egiterakoan, kontuan izan beharko dira beti antolamenduari eragiten dizkioten alderdiak. Arlo horretan, talde osoarentzat finkatutako iharduera eta proiektu amankomunez baliatu beharra dago, eta horiek oinarri gisa hartuta, hezkuntza-premia bereziak dituen gaztearekin landu nahi diren berariazko ikaskuntzak ezarri.

7.5.- Egokitzapen ergonomikoak.

Curriculum-Egokitzapenen eginkizun nagusia curriculumean jasotakoak erdiesteko moduak ahalbidetzea da. Lan-munduan hasteko prestakuntzari dagokionez, zenbait aparatu edo makina erabiltzeko modua ematen duten dispositibo, prozedura edo elementu teknikoek baliatzeko aukera ahalbidetzea da egokitzapen horien helburua. Arazo horiei guztiei egiten diete erreferentzia egokitzapen ergonomikoek.

Ergonomiaren xedea zera da, kanpoko baldintzak pertsonen ongizateari doitzea. Kontzeptua askoz konplexuagoa da, jakintzagai desberdinak eta teknologia desberdinak behar baitira xede hori lortzeko, alabaina, normalean oztopo aktitektonikoez hitzegiterakoan erabiltzen dugu ergonomia hitza.

Hala ere, alderdi operatiboagoak eta funtzionalagoak ere hartzen ditu gune gisa, ikasketa nahiz lan-alorreko baldintzak pertsonen ongizatearen menpe jartzen saiatzen delarik.

Ergonomiak ondoko elementuak kontuan hartzen ditu:

- Pertsonak; pertsonak dituzten premiak ikertzen ditu.
- Makinak, erremintak eta objektuak.
- Iharduera bera: idatzi, tekleatu, gidatu,...
- Giro fisikoa eta antolamenduzkoa (argia, tenperatura, zaratak, txandak, burutu beharreko eginkizunak,...)

ATED taldeak dioenez, 4 azterketa-maila hartu behar dira kontuan urritasunak dituen edozein pertsonaren arazoei heldu ahal izateko, hona hemen:

1.- Zereginen analisia:

Helburu nagusia ondokoa da: pertsona baten keinu, hautemate, zentzumen eta adimen-funtzioak ezagutzea zeregin bat edo bestea (bakoitzak dituen ezaugarriak kontuan hartuta) emateko.

Era berean, maila honetan behar dituen laguntza teknikoak nahiz antolamenduzkoak eta prestakuntza-premiak zehaztu behar dira.

2.- Baldintzen eta ingurunearen analisiak:

Alde batetik, giroa, hots, zaratak, tenperatura eta argitasuna aintzat hartu behar dira. Bestetik, makinek inposaturiko betekizunak, jarrerak, erritmoa, eragozpenak eta estresa. Horietaz gain, kontuan hartu behar da halaber altzari eta erreminten diseinua, urritasunen bat duten ikasle edo eta langileek erabiltzeko modukoak, funtzionalak izan behar baitute.

Honakoan garrantzi berezia du curriculumean ezarritakoak betetzeko aukera izateak: ikastetxera joateko modua edukitzeak eta ikasteko lanabesak erabiltzeak. Garrantzitsua da baita ere lanpostu bat lortzeko aukera ez ezik, lanabes nahiz erremintak erabiltzeko modua izateak.

3.- Ikasle bakoitzaren ezaugarrien balorazioa:

Ikasle bakoitzaren ezaugarriak baloratzeko orduan, kontuan izan behar da pertsonaren eta ingurunearen arteko harmonia-falta islatzen dutela gaitasun-ezek. Urritasun batek gaitasun-eza bat baino gehiago eragin dezake, inguruneak eskaini ohi dituen oreka-baldintzen arabera.

Gaitasunak baloratzea diogunean gorputz eta adimen-gaitasunak baloratu behar direla esan nahi dugu, zentzumen eta hautemate-gaitasunak, jokabideen funtzionaltasuna, komunikazio-gaitasuna, frustrazioarekiko erresistentzia, erantzukizuna, talde-lana, etab. baloratu behar direla, prestakuntza eta trebakuntza-programen bidez baldintzak hobetzeko eta gaitasunen eta zereginen eskakizunen artean dagoen aldea murrizteko.

4.- Gizarteko faktoreen analisia:

Zentzu estuenean, gizarteko faktoreek ez dute zerikusirik hezkuntza-munduan, alabaina, hala izanik ere, eragin izugarria dute bertan. Atal honetan gizarte-azturak, laguntzako sareak, aisialdia, gizarte-balorazioa, familia,... sartzen dira, besteak beste.

7.6.- Prozesu orientatzailea

Banakako Transizio-plan osoa gidatu eta aztertu behar duen oinarritzko elementua da orientabidea, planean jasotako hainbat alderdi birformulatzeko eginkizuna duelarik, ikasleak helduen munduan egoki integratu daitezten. Prozesu hori ikastetxeko orientatzaileak koordinatzen duen arren, irakas-taldeko kide guztiei dagokie erantzukizuna, orientabide-prozesu ororen oinarrian, irakasle bakoitzak jarrera desberdinak behatu eta antzematen baititu eta metodologia egokitzen baitu ikasleen gaitasunak ahalik eta gehien bultzatzeko.

Orientabide-prozesua Banakako Transizio-Plana osatzen eta egituratzen duten elementuetan gauzatzen da. Hori dela eta, hezkuntzako profesionalen eta ikasle urrituen guraso nahiz elkartekideen arteko elkarreraginezko komunikazioa guztiz ezinbestekoa da; guztiek parte hartu behar dute ikasleen familiei programak eskaintzeko: ikaslearen gizarte-trebetasunak bultzatzeko, astialdia erabiltzen laguntzeko eta eguneroko bizitzan beharrezkoak izango zaizkion azturak indartzeko.

Orientabide-Zerbitzuak ondoko eginkizunak bete behar ditu besteak beste:

- 1.- Ikasleei hezkuntza eta lanbide-orientabidea eman behar die.
- 2.- Tutoreei lagundu eta behar denetan aholkularitza-lanak bete.
- 3.- Hezkuntzan dauden eragozpenak aurrikusi eta antzeman.
- 4.- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat sortutako programak diseinatu eta aplikatu.
- 5.- Ikasleen promozioari dagozkion erabakiak hartzerakoan esku hartu.
- 6.- Alderdi psikopedagogiko eta metodologikoei buruzko aholkuak eman.

Zereginen ikaskuntzarako ikasgelari eta bertan dabilzan ikasleei dagokienez, ondoko hauek dira orientabidearen eta hezkuntza-laguntzaren ezaugarri nagusiak:

- Nerabeari une jakin batzuetan laguntza emateko etengabeko prozesua da. Aipatutako uneak ondokoak dira: lehenik eta behin Irakaskuntza Ertainetako ikastetxean hasterakoan edo kide berrien taldean sartzerakoan, gero,

ikaskuntza-prozesuaren jarraitzea egiterakoan eta, bukatzeko, azken txosten pedagogikoa luzatzean, non jarraitu beharreko hezkuntza-ibilbidea gomendatzen den -hori ez da derrigorrezkoa-.

- Ezin ahantz daiteke familiak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen garapen soziala eta pertsonala bultzatzeko orduan duten garrantzia.
- Orientabidea eta hezkuntzako laguntzak irakasle-taldeko kide guztiek elkarlanean planifikatu, garatu eta ebaluatu behar dituzte. Halaber, irakasle-taldeari dagokio ikasgela arruntetako irakasleekin eta zereginen ikaskuntzarako ikasgelako irakasleekin izango diren komunikazio-uneak plan orokorrean zehaztea.
- Curriculum-egokitzapen indibidualak landu, praktikan jarri eta ebaluatzeko lagungarria da orientabidea.
- PATEko aholkulari psikopedagogiko edo eta didaktikoekiko koordinazioa ezinbestekoa du, etapa nahiz arlo jakin bati buruzko laguntza teknikoak eta aholkularitzari esker abiarazi baitaitezke curriculum-egokitzapenak.
- Azkenik, gizarte-inguruneko beste erakunde batzuekiko (gizarte-zerbitzuak, osasungintza, enplegua, aisialdia eta astialdia) erlazioak ere koordinatzen ditu, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen Banakako Transizio-Planari (BTP) elementu pertsonalak eta gizarte nahiz hezkuntza-alorrekoak erasteko.

7.7.- Taldearen tutoretza Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela

Tutoretza-ihardunak, irakas-ihardunaren baitako elementua baita, azpimarratzea komeni den ezaugarri berezi batzuk ditu aztertzen ari garen hezkuntza-baliabide honetan. Hona hemen:

- 1.- Ikasleari nortasuna garatzeko eta adimena sustatzeko burutu behar duen prozesu pertsonalizatuan du lekua tutoretzak, dituen gaitasunez ohartzen edo aurrerantzean eskola nahiz lan munduan izango dituen aukerez jabetzen laguntzeko.

Prozesu honetan une desberdinak daude, hots:

· Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelako hasierako harrera

- Ikastetxea, irakasleak eta programa bera ezagutzeko lagungarriak diren dinamikak bultzatzen ditu tutoretzak, bertan parte hartzeko jarrera sustatzen duelarik nolabait.
- Taldekideak ezagutzeko modua eta bertan integratzeko aukerak bultzatzen ditu tutoretzak.
- Jatorrizko ikastetxeak ikasleei buruz emandako informazioak biltzen ditu tutoretzak eta datuak osatu, curriculum-egokitzapenen, ikaskuntza-estrategien, gizarte-trebetasunen eta abarren gaineko informazioa erantsiz.

· Ikaskuntza-prozesuaren eta garapen pertsonaleko prozesuaren jarraiketa

- Tutoretzak ikasle bakoitzaren bilakaeraren berri biltzen du, modu integratuan bildu ere, eta bildutako informazioa ikasleari jakinarazten dio.
- Talde-dinamiken bidez, taldeko kide guztiekin helburuak zenbateraino lortzen ari diren aztertzen du tutoretzak.

· Ikasle bakoitzarentzat gela arruntetan programa integratuak garatzeko aukerak ebaluatzen ditu tutoretzak.

- Ikaslearen, Zereginen Ikaskuntzarako ikasgelan eta ikastetxearen egoerak aztertzen ditu eta bakoitzaren BTPari erantzuten dioten prozesu integratzaileak burutzeko aukerak baloratzen ditu.
- Prozesu integratzaileak egituratzen ditu, ikastetxeko gainerako irakasleekin prozesuak bateratuz eta integrazioa ahalbidetzen duten jakintzagaiak, arloak, irakasgaiak, espazioak, uneak eta zirkustantziak baloratuz, beti ere ikaskuntzen eta gizarteratze-prozesuen funtzionalitatea kontuan hartuta.
- Prozesu integratzailearen jarraiketa burutzen du eta, parte hartzen duten hezkuntzako agente guztiekin ebaluatzen, egoki iritziz gero prozesuaren iraupen-denbora hedatu, murriztu edo mugatzeko.

· Programaren bukaeran

- Kurtsoaren amaieran, erdietsitako lorpenak eta jarraitzeko aukera desberdinak ikasle-gurasoekin batera aztertzen ditu tutoretzak, burutu daitezkeen praktikak proposatzen ditu eta subjektua eta bere familia beste gizarte nahiz lan-baliabide batzuekin harremanetan jartzen.

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelako ikasleen tutoretza ezartzeko zenbait aguz hartu behar da kontuan, hala nola, ikasle horiek duten jarraiketa-premia, Ikasgela arruntan ematen duten denbora eta talde handiko integrazioa. Bestalde, tutoretza nola egituratu erabakitzeko, kurtso arrunteko irakasleak, orientatzaileak, Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelako irakasleek eta ikastetxeko Ikasketa-Burutzak ados jarri behar dute eta, ahal duten neurrian, integrazio eta normalizazio-maila handiagoa bultzatu, BTPko proposamenek eta Zereginen Ikaskuntzarako Programak gomendatuz gero, behinik behin.

7.8.- Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelaren antolamendua

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelak okupaturiko espazio fisikoak, handia eta egitura egokikoa izan behar duelarik, gela horrek bete beharreko hezkuntza-ihardunaren alderdi jakin bat edo guztiak garatzeko proposa izan behar du. Ikasgelan funtzioa are eraginkorragoa izango da bertan burutu beharreko xedeak ugariak izanez gero, are osatuagoa diziplinarteko planteamendua kontuan hartuz gero, norbanakoa bera eta horri dagokion alderdi partzial guztiz espezializatu bat lantzeko egokia bada, alegia.

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela baliabide didaktiko integratzaileak biltzen dituen gela da. Irekia denez, ikasleak norabide bikoitzean eta irakasleak ahalik eta norabide gehienetan bultzatu behar ditu: Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelatik Ikasgela Arruntera nahiz ikastetxeko beste hezkuntza-espazioetara eta alderantziz.

Eskola-antolamenduaren ikuspuntutik begiratuta, Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela ikastetxeak osatzen duen sistemaren barruan dagoen azpisistema dela esan daiteke. Azpisistema gisa, beraz, berezko bizitza du eta ikastetxeko bizitzako gainerako guneekin erlazionatuta dago. Berezko bizitza duela diogunean zera esan nahi dugu, modu mugatua bada ere, laguntza berezia behar duten ikasleak eskola-elkartean integratzeko bide guztiak barne hartzen dituela.

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela modu askotara antola daiteke ikastetxearen sistemaren barruan. Nolanahi izanik ere, baliabide guztiek, espazio balioanitz batean bildurik nahiz ikastetxeko baliabide eta ekipamenduetan sakabanaturik, honakoa bermatu behar dute:

- a) Zilko taldea biltzeko espazio egonkorra izango dela, non tutoretza-iharduerak eta bakarkako nahiz taldeko iharduerak burutu daitezkeen.
- b) Autonomia pertsonala bultzatzeko, eguneroko bizitzan nahiz elkartean moldatzen laguntzeko eta abarrerako esperientziak eta trebakuntza lantzeko espazioa izango dela (Etxeko iharduerak, higiena, psikomotrizitatea, soinketa etab. jorratuko direla bertan, alegia).
- c) Oinarrizko ikaskuntzak edo berariazko ikaskuntzak lantzeko espazioa izango dela, horretarako behar diren ekipamendu, erreminta, makinak eta lanerako banku eta guzti.
- d) Bestelako esku-hartze programa batzuen arabera erabiltzeko moduko espazioa izango dela (informatika, musika, antzerkigintza, psikomotrizitatea, gorputz-hezkuntza lantzeko modukoa izango dela).

Hona hemen antolamendurako ikuskera nagusi bien berri:

a) Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela ikasgela balioanitz gisa

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelak Tailerrik edo espazio gehigirik gabeko ikastetxeetarako pentsatuta daude.

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelak espazio zabala hartu behar du, programa garatzeko modua emango duten hiru multzo handiak biltzeko moduko espazioa, hain zuzen ere. Hona hemen aipatutako multzoak eta espazioak:

- Tutoretza eta banakako nahiz taldeko lanak burutzeko espazioa.
- Eguneroko bizitzarako esperientziak eta trebakuntza lantzeko espazioa.
- Tailerra kokatzeko espazioa.

Ikasgela honetan dabilzan ikasleek beste espazio arrunt batzuk ere erabil ditzakete, hala nola, ikastetxearen programa orokorra lantzeko gelak, eta gorputz-hezkuntzako, informatikako, musikako, plastikako, marrazketako, diseinuko eta abarreko gelak.

Era berean, gainerako ikasle arruntek edo talde jakin batek Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelako espazioak erabil ditzakete, bai esperientziak lantzeko espazioa, zehar-programaren bat burutzeko asmoz, eta baita tailerra ere.

Guztiak dituzte abantailak, are integratzaileagoak izango baitira ikasleentzat balioanitzago diren heinean. Hala ere, kontuan izan behar da tutoretzarako eta

banakako nahiz taldeko lanak burutzeko espazio berezi bat izan behar dutela, ezinbestekoa da eta Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelan dabilzan ikasleek aurrerapenak lortzeko eta elkarren arteko lotura

b) Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela ikastexeko ikasle guztiek erabiltzeko espazio-multzo gisa

Ikuskera honek ikastetxean are integratuagoa dagoen gela gisa erakusten digu Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela. Alde batetik ikastetxeko gainerako espazioekiko proiektu amankomun bat izan behar du, baina bestetik, bertan dabilzan ikasleak sakabanatzea eta inongo orientaziorik gabe geratzea nahiz integrazioa ez lortzea eragotziko duten elementu egituratzaileak ere behar ditu, gainerako ikasleekin kontaktu desberdin gehiegi izanda aipatutakoak gertatzeko arriskua baitago.

Hori dela eta, ondoko neurriak hartu behar dira esandakoa gerta ez dadin:

- a) Tutoretzarako espazio berezi bat izan behar da. Irakasle-taldea, erreferentzi taldea, banakako esku-hartzeak eta talde txikiko esku-hartzeak kokatuko dira bertan.
- b) Zenbait arlo lantzeko talde arruntean ihardutea erabakiz gero, taldeak finkoa izan behar du eta horren parte-hartzea guztiz programatu eta egituratua.
- c) ZIIko taldeak beste espazio orokorrak ere erabil ditzake: gimnasioa, jolastokia, ekitaldi-aretoa, tailerrak, informatika-aretoa, musika-aretoa, liburutegia, etab. Ikasle arruntentzat eta ZIIko ikasleentzat trebakuntza egokia da hori jende ugari bildu ohi den espazio konplexuetan moldatzen ikasteko.

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelaren antolamenduak gaitasun-maila desberdinak dituzten gazteekin batera lan egiteko aukera ematen du eta elkarren arteko harremanak ahalbidetzen, guztiek zeregin berdinak burutzen eta talde kooperatiboak osatzen baituzte, talde-mota guztiak osatu ere, hala nola, heterogeneo nahiz homogeenak, talde txikiak nahiz handiak, talde finkoak nahiz malguak eta bakarkako lana.

Talde kooperatiboetan antolatuta egoteak ondorio positiboagoak sortzen ditu motibazioaren aldetik, informazioa bilatzeko eta alderatzeko, beste eredu batzuekin erkatzeko eta guztiek ekarpenak egin behar dituztela ohartzeko modua ematen baitu.

Era berean, ikasgela balioanitza denean, kontuan hartu behar da bi profesional bertan ihardunez gero, sarritan, batera lan egiten dutela. Hori dela eta, ongi koordinaturik egon ez ezik, elkarlanean aritu eta batak bestearen osagarri izan behar dute. Erabat garrantzitsua da hori.

Denboraren zati bat ikasgela arruntean zenbait lan burutzeko erabil daiteke, hots, laguntza gisa, gela arruntean eskolak izateko, ikasle batekin edo gehiegorekin iharduerak burutzeko etab. Alabaina, programa arrunteko irakaslearekin batera modu koordinatuan lan egitea eskatzen du horrek eta, arestian esan bezala, talde-mota desberdinak osatu eta ikasle arruntek egin ohi dituzten iharduerak burutzeko gauza izatea.

Ikastetxearekiko eta ikaskuntzarekiko jarrera positiboa bultzatzeko eta autonomia azturak eskuratzeko, **denbora eta espazioa egoki banatu behar dira**. Denbora eta espazioa behar bezala banatzeko, bestalde, burutu beharreko zeregina eta lortu nahi diren helburuak kontuan hartu behar dira.

Denboraren antolamenduari dagokionez, ondokoak aintzat hartzea ezinbestekoa da:

- a) Oro har, denbora anitz modutara antolatu daiteke. Dena den, Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelak funtzionamendu egokia izan dezan, oinarritzko ordutegi bat finkatu behar da, eta horren inguruan bakarkako iharduerak egituratu: (Bakarkako eta taldeko integrazioak, iharduera osagarriak, etab.).
- b) Orientazio gisa, Tailer-eremuak 10-15 ordu har dezake astean (10 Oinarritzko Ikaskuntzen zikloan eta 15 Berariazko Ikaskuntzen zikloan, esate baterako).
- c) Autonomia pertsonala eta gizarte-autonomia lantzeko, halaber, 10-15 ordu inguru erabil daitezke eskaintako formazio multzoen arabera: komunikazioa ahalbidetzeko iharduerak, esperientziei buruzko iharduerak eta autonomia pertsonaleko iharduerak ezarriz besteak beste.
- d) Iharduerak elkartean bertan, hots, testuinguru errealean kokatzea komeni da, noizbehinkakoak izan gabe, programazioaren barruan jasota egon daitezen.
- e) Ibilbide pertsonalak bultzatzea komeni da, ibilbide pertsonalak eta integrazio-prozesuak egoki lotzeko eta.
- f) Ikasgelako ikasleak eskolaz kanpoko iharduera osagarrietan parte hartzea komeni da, horrela esperientzien multzoa osatuko dute eta. (Hori horrela, ondokoak komenigarriak dira: ikastetxeko beste ikaskideekin irteerak eta bisitak egitea -ahal bada erreferentzi talde arruntarekin-, kurtso bukaerako bidaiak, txangoak, zinematografi proiektzioak, antzezlanak, kontzertuak, mendiko irteerak, kanpoko ekipamenduetan egonaldiak, etab.).

7.9.- Curriculum-materialen hautaketa

Orain arte aipatutako erabakiez gain, curriculum osatuko duten materialak hautatzea ere irakasleei dagokien gauza da, kontuan izan behar dituztelarik alde zuzenak ezarritako helburuak eta hartutako metodologi erabakiak. Nekez aurkituko ditugu gure interesari erabat egokitzen zaizkien materialak, hori dela-eta hautatzerakoan zenbait gauza izan behar dugu gogoan, hots, irakasleek eta ikasleek ihardueren burutzapenean duten eginkizuna, abiapuntu gisa hartutako hezkuntza-ereduarekiko koherentzia, materialak berak eskatutako betekizunak eta, batez ere, materialak erabiltzaileentzako egokiak direla, horien **adin kronologikoari** egokitzen zaizkiola, alegia.

Gauzak horrela, ikaskuntzarako materialak erabiltzeko orduan kontuan izan beharko da material horiek partzialki eta modu askotara erabili beharko ditugula.

Gure Ikasgelako Proiektuari egokitzen zaizkion argitaratutako materialak aurkitzea zaila denez, esku-hartze eremu desberdinetan, hots, eguneroko bizitzan, moldatzeko, autonomia pertsonala bultzatzeko, elkartean moldatzeko, zereginen ikaskuntza oinarritzkoak eta berariazkoak burutzeko, behar diren baliabide guztiak barne biltzen dituen material-banku bat izan beharko dugu eskura.

Pedagogi Aholkutea (PAT) Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgeletan lanean ari diren irakasleek erabili ohi dituzten materialez aritzeko erreferentzigune aparta izan daiteke, esperientziak, ideiak, jada landutako material zehatzak eta ikaskuntzarako baliabideak eztabaidatzea iturri ezin hobea gerta baitaiteke mota desberdin askotako curriculum-materialak metatu ahal izateko.

7.10.- Integrazioaren aldeko jarrerak bultzatzen.

Dokumentu honen sarreran adierazi dugunez, aurrerapen nabarmenak izan dira hezkuntza-premia bereziak dituzten pertsonen integrazioan, eskola eta hezkuntza-esparruan nagusiki. Hezkuntzak, aukera-berdintasuna bultzatzeko, kultura amankomuna eskaini nahi die herritar guztiei, guztiek baitute horretarako eskubidea. Hori horrela, inork ez du zalantzan jartzen egokia dela derrigorrezko hezkuntza 16 urte bete arte luzatzea, justizia eta ongizate sozialeko maila altuagoa lortzeko lagungarria baita.

Haatik, lortu nahi dugun gizarte-eredu horren eta urritasunak dituzten pertsonak bertan onartzeko jarreraren artean kontraesan handia sortu da. Kontraesanaren iturburuetako bat informazio-eza eta iharduera-estrategien falta da, gure ohizko ingurunean urritasunak dituzten pertsonak egon daitezen nahi izanez gero ezinbesteko baldintza izanik hori.

Estereotipoak eta aurritziak, sarritan ezjakintasunaren ondorio direnak, aldatu ahal izateko, jarrera pertsonalak aldatu behar ditugu aurrena eta aipatu pertsonetikiko sentzibilizazioa bultzatu, jarrera positiboak eragin behar ditugu, azken batean. Eskolatik hasi nahi badugu, hezitzaileen esku dago ikasgelan nahiz ikastetxean jarrera horiek alda daitezen lortzea eta horretarako esku hartzea.

Zentzu horretan, eskola-eremuan bertan jarrera positiboak bultzatzeko aldagaiei dagokienez, honako hauek azpimarra daitezke:

1.- Irakasleak:

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin aritzerakoan, norbere buruan konfidantza izatea.
- Eskola arruntak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako lekuri proposenak direla pentsatzea.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin zuzeneko harremanak izatea, eta informazioa eta prestakuntza eskuratzea: ikastaroak, irakasle-taldearekiko eta laguntzako zerbitzuekiko koordinazioa, eztabaidak,... eta espezialisten laguntza.

2.- Familiak:

- Integrazioak gizarte-hezkuntzarako eta seme-alabekin bizitzeko duen garrantziaz jabetzea, seme-alaba horiek hezkuntza-premia berezirik izan ez arren.
- Gurasoei bileretan baloreak bultzatzeak duen alde onei buruzko informazioa ematea.

3.- Ikasleak:

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen presentziak berak gainerako ikasleekiko harremanak eta horien laguntza sustatzen ditu.
- Pertsonen berezitasunak onartzea: berezitasun fisikoak eta nortasun alorrekoak, errendimendu-maila desberdinak,... gauza normala eta positiboa baitira.
- Ikasle guztien arteko lankidetzaren erta laguntza-giroa bultzatzea.

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak direla eta, elkartasun, adiskidetasun eta maitasun sentimenduak indartzea eta gupida nahiz errukia alde batera uztea.

Oro har, zera esan daiteke, eskolan jada abian dagoen integrazio-prozesuan guztiz ezinbestekoak diren bi baldintza daudela, informazioa eta laguntza, alegia, iharduteko estrategiak burutu behar direlarik eskolan eta bertatik kanpo. Funtsezkoa da guztiak eskolako integrazio-prozesu horren oinarri diren arrazoien jakinaren gainean jartzea.

Pertsona urrituen berezitasunak onartzeaz eta horien eskubide-berdintasuna aldarrikatzeaz ari diren edukin etiko eta juridikoez gain, edukin pedagogikoak ere badaude. Izan ere, garrantzi izugarria dute edukin horiek.

Egun zalantza izpirik ez dago guztiz onuragarria dela hezkuntza-premia bereziak dituztenentzat urritasunik gabeko kideekin batera eskola-bizitza normalizatua izatea.

Hona hemen arestian aipatutako onuren berri:

- **Heldu gisa bizitzeko prestakuntza.** Bere herriko eskolara joanez gero, hezkuntza-premia bereziak dituen ikaslea bizi den elkartean bertan hezten da eta, ondorioz, elkarte horretako kide elkardependente bilakatzeko gaitasunak eskuratzen ditu.
- **Ikaskuntzaren hobekuntza.** Ikaskuntzaren alderdi ugari hobetu egiten da eskola integratuetara joanez gero. Ikasgelako kideak gizartean ontzat jotako jokabideen eredu bilakatzen dira hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat.
- **Adiskidetasuna.** Eskolan ezagutzen dituzten adiskide batzuk elkarte edo auzo bereko kideak dira, eta horrek ikastetxean nahiz bertatik kanpo dituen gizarte-harremanak sustatzen ditu.

Ondoren, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin integratzeak ikasle arruntei ekarritako onuruak aztertuko ditugu. Hona hemen:

- **Gizarte-trebetasunen errepertorio zabalagoa.** Urritasunen bat duten ikaskideak badituzte, ikasle arruntek gizarte elkarreraginerako bide berriak lantzen dituzte. Horiei esker autoistimua eta pertsonarteko jokabideak areagotu eta bikaindu egiten dira.
- **Ikasle arruntak,** heldu direnean urritasunen bat duten seme-alabak, lankideak, auzoak etab. izateko aukera estatistikoak baitituzte, horrelako pertsonak onartzen prestatzeko bide aparta da integrazioa.
- **Adiskidetasun kontzeptuaren esanahi tradizionalaren hedapena.** Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin harremanetan hasi ahala, ikasle arruntek bestelako adiskidetasun-harremanak ezartzeko aukera dute; hori horrela, adiskidetasun kontzeptuak esanahi berri bat hartzen du.
- **Ikaskuntzaren hobekuntza.** Jokabideak hobetu ez ezik, ikasleak helduak direnean elkartean parte hartzera bultzatuko dituzten alderdi garrantzitsu guztiak ere hobetuko dira.
- **Aniztasuna pedagogi berrikuntzarako iturria da.** Ezaugarri desberdinak dituzten pertsonak biltzen dituen eta guztiei moldatzen zaien eskola mesedegarria da ikasle guztientzat.

Ikasgela arruntetako irakasleentzat ere onuragarria da esperientzia integratzailea, irakasle espezialistei behatuta gelako ikasle guztiei, eta bereziki eragozpenen bat dutenei, laguntzeko estrategia eraginkorrak ikasten baitituzte.

Ikasle arruntengan jarrera positiboak sortuz lortu nahi diren helburuak ondokoak dira:

- Ikasleei euren artean berezitasunak daudela aditzera ematea, errendimendu-maila desberdinak, ezaugarri fisiko bereziak, nortasunaren ezaugarri bereziak, trebetasun bereziak eta urritasunak daudela erakustea.
- Norbere eragozpen edo mugak direla-eta barregarri geratzeko beldurra nolabait kentzea, kooperazio eta lankidetzaren giroa bultzatuz, batez ere hezkuntza-premia bereziak dituztenekin.
- Eragozpenak edo urritasunak dituzten ikasleak direla eta gupida edo errukia sentitu beharrean, elkartasunez, adiskidetasunez eta maitasunez jokatzeko.

Irakaskuntza Ertainetan, ikasleak nerabe diren artean jarrera positiboa eragiteko biderik eraginkorrena jarrera, balio eta iritziak aldatzeko gure esku dagoena egitea da, oraindik modu autonomoan finkatzen hasi berriak baitaude.

Aipatutako jarrera positiboak bultzatzeko guztiz erabilgarriak izango zaizkigun ekintza batzuk badaude. Hona hemen zenbait: hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekiko jarrera positiboak bultzatzeko iharduerak burutzeko Ihardunaldiak; Bideo-emanaldiak; Urrietasun eta gaitasun-ezei buruzko erakusketak eta eztabaidak; Leihaketak; Antzezpen soziodramatikoak; Eskolako irratzi-programak; Kazetaritza-lanen lehiaketak, ipuinak, marrazkiak, argazkiak; Eskola-aldizkariak; Liburuskak, kartelak, eranskailuak, elastikoak eta eskolarako materialak banatzea; sormena eta jarrera-aldaketa sustatzeko lan sistematikoak.

Sentsibilizazio-prozesuak, ikaragarri garrantzitsua delarik integrazio-programak gizarteko errealitateari moldatzeko, urritasunen bat duten pertsonen irudi positiboa ematen saiatu behar du, gizartean nagusi diren beldur eta auriritziak baztertuko dituen irudia, hain zuzen ere.

Nolanahi ere, gizarte-bitartekari batzuk erabili behar ditugu eskola-testuinguruan elkarteko kideak sentzibilizatzeko. Bitartekari horiek ondokoak izan daitezke: Eskola-Kontseilua, Ikasle-Kontseilua, Ikasleen Elkarteak, Ordezkaritza-Kontseiluak, Ikasleen Gurasoen Elkarteak, ikastetxeko edo zonako Laguntzako Taldeak, Elkarlaguntzarako elkarteak eta borondatezko elkarteak, etab.

8.- EBALUAZIOA.

Hezkuntza-iharduera baloratzeko modua ematen duen prozesua izanik, ebaluazioaren funtzioa ondokoa da: alde zuzenetik ezarritako helburuak zenbateraino eskuratu diren, atzerapenik egon ote den ala inongo aurrerapenik izan ez den eta zergatik zehaztea, behar izanez gero esku hartzeko.

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgeletan landutako helburuak irekiak direnez, zehaztapen ugari izan daiteke eskola nahiz gizarte-testuinguruaren arabera eta ikasle bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Ikuspuntu horretatik begiratuta, hezkuntza-prozesuaren zati garrantzitsua da ebaluazioa, prozesua bera berrorientatzeko modua ematen duelarik. Hona hemen prozesuaren ebaluazioaren ezaugarriak:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hasi aurretik, ikasleek dituzten alde aurretiko ezagutzen berri izateko balio du.
- Ikaslearen baldintza pertsonalak eta familiako nahiz gizarteko baldintzak ezagutzeko modua ematen digu.
- Ikasleak erabiltzen dituen estrategiez ohartzeko ere balio du, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bikaintzeko aukera ematen digularik.
- Azkenik, ikaskuntza-prozesua amaitutakoan gaitasunak zenbateraino eskuratu diren jakiteko balio du prozesuaren ebaluazioak.

Ebaluazioari buruz ari garela, zenbait gauza jakitea interesatzen zaigu, hala nola: ikasleak zer ezagutza duen eta zer egiten dakien, nola bildu eta lantzen duen guk emandako informazioa, zenbat denbora eman dezakeen buru-belarri lan bat burutzen, zein baldintzatan ikasten duen hobeto eta zer-nolako interesak eta motibazioak dituen ikaskuntza dela-eta.

Ikaslearen gaitasunen jakinaren gainean egonda, erabateko garapen pertsonala eta soziala lortzeko ustez ezagutu behar dituen edo egiten jakin behar dituen gauzak ikasteko lagunak diren ikaskuntza-iharduerak sartuko ditugu curriculumean.

Alabaina hori egin ahal izateko ahalik eta indibidualena izan behar du ebaluazioak, ikaslearen aurrerapenak ezagutzeko eta ikaskuntza-prozesua bideratzeko asmoa badugu behinik behin.

Esanak esan, transizioa planifikatzerakoan egin beharreko estraineiko urratsa da ebaluazioa. Egoera fisiko, mental eta emozionalaren behaketa barne hartzen du. Kasu bakoitza berezia da, hortaz, bakoitzean, ikaslearen premiak eta hurbileko testuingurua kontuan hartuta, programa berezi bat egitea erabaki behar da.

Ondoren, ikasle bakoitzari egokitutako plan bat landu behar da eta abiarazi. Ez da ahantzi behar eginkizun hori burutzeko ezinbestekoa dela irakasle arruntak, laguntzako irakasleak eta gurasoak elkar lanean aritzea.

Plana abiarazi ostean, berriz ekin beharko diogu ebaluatzeari, planteaturiko helburuak zenbateraino lortzen ari garen zehaztu ahal izateko.

Ebaluazio-prozesuak izugarriko garrantzia duenez, ikaslea Zereginen Ikaskuntzarako Programan murgildu bezain laster, denbora-epe jakin bat hartu behar da (hilabete bat esate baterako) une horretan eskuan dugun informazioa zabaltzeko eta Banakako Transizio-Planak prestatzeko modua emango diguten ebaluazio-prozesuak burutzeko.

9.- IKASGELAKO PROIEKTUA

Zereginen Ikaskuntzarako Programak ikastetxearen, elkartearen, irakasleen eta ikasleen baliabideak aktibatzeke gai den hezkuntza-proposamena izan dezan, Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgela antolatzeke Proiektu bat landu behar da nahi eta nahi ez. Proiektu

horrek, epe ertainera, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko Hezkuntza-Proiektuaren, Curriculum-Proiektuaren eta ikastetxearen hezkuntza-eskaintzaren barruan egon behar du. Landu eta berehala, Ikaskuntzaren Planean eta bertako planifikazioan azaldu behar du Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelako Proiektuak.

ZI Ikasgelako Proiektuaren garrantzia honakoan datza: ikastetxean edo ikasgelan lanean ari diren pertsona guztien asmoak esplizito bilakatzean, edo bestera esanda, Zereginen Ikaskuntzarako Programak eman zitzaion xedea betetzen duela ziurtatzean.

Ikastetxe bateko ikasgela batek edo gela bakoitzak Proiektu berezi bat landu behar du ezinbestez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin burututako hezkuntzako esku-hartze orok taldearen lana zehaztu, egituratu eta antolatuko duen alde zuzeneko hausnarketa batean oinarritu behar baitu.

Era berean, proiektuak dokumentu erabilgarria izan behar du irakasle-taldearentzat, hau da, esku-hartzeari buruzko aurretzako kontzeptu, estrategia eta ideia batzuk eztabaidatzeko modua eman behar die, horrela elkarlanean koordinazioz eta koherentziaz jokatu baitute.

Ikasgelako Proiektuan lau alderdi nagusi bildu behar dira, hona hemen:

- a. Zereginen Ikaskuntzako Programaren ikuskera nolabait finkatzen duten elementu orokorrak. Elementu horiek ondokoak dira: ikasgelaren eta ikastetxearen testuinguruarekin zerikusia duten alderdiak, bertako xedea, ziklo eta faseak, lanbide-perfilak eta horien justifikazio eta hezkuntza-erantzunaren egitura.
- b. Ikasgelako curriculumarekin zerikusia duten elementuak, hots, zer irakatsi behar den, nola eta noiz eta ebaluazioa nagusiki, ez delarik aiantzi behar ikastetxearen curriculumarekin duten harremana ere.
- c. Antolamendu eta funtzionamendurako elementuak, ikasle-taldeak bakoitzak dituen BTPen arabera, ikasleen alde zuzeneko esperientziak, gainerako ikasleen curriculum bera, espazio berak, denbora bera eta esperientzia berberak izateko irizpideak.
- d. Ikasgelako Proiektua Ikastetxeko Proiektuarekin lotuta egotea, ikasgelako ikasleak ikastetxeko gainerako ikasleekin lotuta egotea; ikasgelako baliabideen harreman eta kudeaketa-egiturak, Orientabide Departamentuarekiko harremanak eta Orientatzailearen funtzioa -orientatzaile bakoitzaren bakoitzaren-, Ikasgelako irakasleen funtzioak, enpresako praktiken antolaketa -beharrezkoa balitz-, aurretzako kontaktuak eta horien arduradunak.

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelako Proiektua osatzen duten elementuak ondoko hauek izan daitezke, oro har:

- 1.- Proiektuaren Esparrua: Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelak zuzentzen zaizkion taldearen eta horren testuinguruaren zehaztapena.
- 2.- Zereginen Ikaskuntzarako Programaren eta Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelaren xedea.
- 3.- Prestakuntza-egitura: Oinarrizko Ikaskuntzen zikloak eta Berariazko Ikaskuntzen zikloak, eta horien barruan, landuko diren Lanbide-perfilak.
Gako moduan hezkuntza prozesua erantzen duen banakako transizio-plana (BTP)
- 4.- Lanbide-perfil bakoitzaren helburuak.

- 5.- Laneko edukinak (hautaketa, sekuentziazioa).
- 6.- Edukinen antolamendua: Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelan, integraturiko egituretan, bakarka, talde arruntetan, ZIIko taldeetan.
- 7.- Metodologi printzipioak.
- 8.- Curriculum-Egokitzapenak egiteko irizpideak: testuinguru arruntetan, Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelan.
- 9.- Ebaluazioa.
- 10.- Espazioak, baliabideak eta materialak.
- 11.- Irakasle-ikasleen partaidetza eta erantzukizunak.
- 12.- Ikasgelako, ikastetxeko eta abarreko koordinazio-egiturak.

III ZATIA

10.- PRESTAKUNTZA-MULTZOAK:

Curriculumak, hezkuntza-asmoak zehazten diren proiektu den heinean, hiru gauza biltzen ditu: alde batetik, ikastetxeek bertako ikasleei eskaintzen dizkien aukerak eta esperientzak, bestetik, aukera horiek eskaintzeko bideak eta, azkenik, irakatsitakoa nahiz ikasitakoa ebaluatzeko moduak.

Gauzak horrela, hezkuntza-eskaintza eta ikasleen ezaugarriak doitzen saiatzen da curriculumak. Alabaina hori lortu ahal izateko gazteei gauza desberdinak egiteko aukera eman behar zaie, denbora eta espazio desberdinetan, irakasle desberdinekin, bestelako ikaskideekin, bakarka nahiz taldean egiteko aukera, hain zuzen ere. Ikasleen aniztasunaren ikuskerak horrek alderdi metodologikoak eta antolamendurako alderdiak berriz planteatzera garamatza.

Curriculumak izan beharreko malgutasuna aldarrikatzeaz gain, ikasleen garapena bultzatu nahi izanez gero, ezin ahantz dezakegu euren abiapuntua kontuan hartu behar dugula eta, ahal dugun neurrian, helburuetan jasotako gaitasunak lortzen saiatu. Honakoa ez da ikasle guztiek ezinbestez bukatu beharreko prozesu baten azken emaitza, aitzitik, ikaskuntza-estiloen, gaitasunen, igurikapenen eta interesen araberrako prozesu bat jarraitu eta gaitasunak eskuratzeko bidea da.

Curriculum-planeamenduaren ezugarri nagusia **ikasteko aukerak** eskaintzen dituela da. Ez da ikasketa-plan itxia non ikasi beharreko guztia adierazten den; hori izan ezik, eskaini beharreko irakaskuntza-aukerak zehazteko erantzukizuna ikasle guztien eskutan uzten duen plan irekia da.

Oro har, burutiko atzerapenak dituzten ikasleen kasuan, hobeto egituratu behar dira irakaskuntza-ikaskuntza esperientziak eta helburu nahiz edukinei eragingo dieten curriculum-egokitzapenak prestatu beharko dira edo eta helburu horiek lortzeko denbora-epea aldatu... Curriculumaren zati handiena Zereginen Ikaskuntzareko ikasgelan burutu ohi den arren, curriculum arrunteko alderdi batzuk landu behar dira eta gainerako ikasleek burutzen dituzten iharduera sistematiko nahiz noizik behinekoak egin. Horrelako kasuetan, autonomia pertsonalarekin, elkarteko mugikortasunarekin eta lanarreko prestakuntzarekin zerikusia duten iharduerek sekulako indarra dute curriculumean.

Bestalde, edukinek hiru dimentsio hartzen dituzte, hona hemen:

- 1.- **Ezagutzazko/kontzeptuzko dimentsioa:** Edukietan konplexutasun-maila desberdineko kontzeptu eta printzipioak sartzen dira, edukin horiekin eragiketa mentalak egiteko modua ematen duten datuak. Edukin horiek dira, izan ere, urritasun psikikoren bat duten ikasleei eragozpen handienak planteatzen dizkietenak eta, horrexegatik, ez dira oso interesgarriak, gizarteratzeko eta lanean hasteko funtzionalak ez baitira.
- 2.- **Prozedurazko dimentsioa:** Mota horretako edukinek helburu bat lortzeko burutu behar diren ekintzei egiten diete erreferentzia. Hor sartzen dira problemak ebazteko trebetasunak, teknikak, estrategiak eta metodoak.
- 3.- **Jarrerazko dimentsioa:** Bizitza orientatzen duten eta jarrera jakin bat hartzera bultzatzen gaituzten baloreak dira dimentsio honetan landuko diren edukinak, balio eta arauetan oinarritutako jarrerak.

Hiru dimentsio horiek ikaskuntzako edukin gisa hartzeak ikasle bakar batzuen berezitasunak ikasgelan bertan jorratzeko aukera ematen digu, oreka pertsonala eta gizarteratzea bultzatzen duten helburuak barne biltzen baitira bertan, kontzeptuzko edukinen pisua arindu egiten delarik nolabait.

Edukinak esanguratsuak dira egoera desberdinetan zuzenean erabiltzeko modukoak baldin badira eta ikaskuntza berriak eskuratzeko baliagarriak badira; hori garrantzitsua da batik bat irakasle-taldearentzat, ikasleari ingurunea ezagutzeko bidea emango dioten edukinak aukeratzeko eta aurkitutakoa komunikatzeko modua emango baitie eta, batez ere, lanbideratzeko eta gizarteratzeko beharrezkoak diren gaitasunak lortzeko prozesua errazten baitiete.

Aukeratutako edukinak ez dagozkio soilik arlo jakin bateko irakasleari, gela arrunteko nahiz zereginen ikaskuntzarako irakasleari, alegia; aitzitik, arlo desberdinetan eta diziplinarteko ikuspegia gogoan irakastea komeni da. Edukinak hautatzeko irizpideak ezartzerakoan, bestalde, moldagarritasuna, lerro metodologikoa, ikasleen adina, haien premiak, irakatsiko denaren funtzionaltasuna eta irakas-taldea osatzen duen kide bakoitzaren erantzukizuna aintzat hartu behar dira.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua errazteko baldintzak bultzatzeko, espazioak eta denborak antolatu beharko ditugu, ikastetxearekiko, ikasleekiko eta ikaskuntzarekiko jarrera positiboak eragiten baitituzte biek, eta autonomi azturak ahalbidetzen, bide batez.

Denborei dagokienez, irakasle-taldeak, ofizialki ezarritako ordutegiak oinarri gisa hartuta, lan integratua burutzeko edo berariazko uneetarako denboralizazio-eredu desberdinak finkatuko ditu, horien iraupena, aldizkakotasuna eta intentsitatea mugatuko ditu, hain zuzen.

Zereginen ikaskuntzarako ikasgela ikaskuntza erabilgarriagoa eta integratzaileagoa bultzatzen saiatzen diren edukin funtzionalen harremana ahalbidetzen duen esparrua da, hezkuntza-premia bereziak dituzten gazteek etorkizunean gizartean eta lan-munduan beharko dituzten gaitasunak eskuratzeko tokia.

Premiak ikasleen gaitasun, interes eta motibazioen arabera sailkatzeak problema praktiko errealek ebazteko edukinak sartzeko aukera, barneratze-gaitasunak garatzeko bidea eta gizartean iharduteko gaitasunak bultzatzeko modua ematen digu.

Jarraian zereginen ikaskuntzarako ikasgelan hezkuntza-premia bereziei arreta egokia egiteko edukin batzuk aipatuko ditugu adibide gisa. Iradokizun hau ez da proposamen itxitzat jo behar, ikasle bakoitzari dagokion Banakako Transizio-Planean adierazitako hezkuntza-premia bereziei egokitu behar zaizkien elementuen multzotzat baizik.

Goian aipatutako orientabide orokor guztiak baliagarriak dira Ikasgelako ikasleen hezkuntza-prozesuak izan ditzakeen etapa orotan. Dena den, aintzat hartu behar da ikaslearen, ikasgelaren, ikastetxearen eta elkartearen beraren egoera zehatzak kontuan izan behar direla beti.

Gauzak horrela, hona hemen ustez egokiak diren ziklo eta prestakuntza-multzoak:

Oinarrizko Ikaskuntzen Zikloa
Berriazko Ikaskuntzen Zikloa
Lantokietako prestakuntza

10.1- Oinarrizko Ikaskuntzen Zikloa

Ondoko lau eremuotako gaitasunak, prozedurak eta jarrerak eskuratu behar dituzte ikasleek:

1.- Komunikazioaren eremukoak ikaslearen garapen pertsonala eta soziala ahalbidetuko duten eta beste ikaskuntza batzuetako bidea irekiko dizkieten oinarrizko gaitasunen garapena du gune gisa (adierazpena, komunikazioa, arauak, kideekiko harremanak,...)

Guztiz garrantzitsua da, halaber, **programa ikasleen adin kronologikoari egokitzea**, adin bereko ikaskideak erreferentzigune gisa hartuz, inolako urritasunik gabeko ikasleek aukeratuko lituzketen iharduerak proposatuz, urritasunik gabeko pertsonekin elkarreaginezko harreman positiboak izateko abagaduneak ugaltzeko neurriak hartuz. Horiek guztiak egin ez ezik, ikaskuntzan erabili beharko duten materiala (testuliburuak, fitxak,...) aukeratu beharko da kontu handiz, beti ere ikasleen adina gogoan izanda, jakina.

2.- Autonomia pertsonalaren eremukoak oreka pertsonalari dagozkion alderdiak barne biltzen ditu, motibazioa, segurtasuna, ikasteko gaitasunen eta ahalbideen autobalorazioa, autozaintza, elikadura eta jantokiaren erabilera eguneroko bizitzan eta elkartean moldatzea, lana bilatzea...

3.- Gizarte-trebetasunen eta elkarteratzearen eremukoak pertsonen arteko harremanak, sentimendu positiboak adierazteko gaitasuna, mesedeak eskatzeko eta egoera gatazkatasuei aurre egiteko gaitasuna hobetzen dira. Moldatzeko gizarte-gaitasun egokiak izanez gero, gizarteko nahiz eskola funtzionamendu intelektual eta emozionala are hobetoagoak izango dira, trebetasun horiek ikaskuntza egituratuaren bitartez eskura daitezke.

4.- Laneko orientabidearen eremukoak lan-munduan sartzeko behar diren ezagutza guztiak barne biltzen ditu, hala nola: esku-trebetasunak, arreta, kontzentrazioa, diskriminazioa, lanarekin zerikusia duten azturak, hots, jarraipideak betetzea, kideekin harremanak izatea, talde-lana eta lankidetzatza, tolerantzia, segurtasun eta garbitasun arauak ezagutzea, arauak betetzea...

Eremu horietan guztietan gaitasunak eskuratzeko, **ikasteko oinarrizko trebetasunak eta eguneroko bizitzako trebetasunak, trebetasun pertsonal nahiz sozialak eta lanbide-alorrekoak** bultzatu behar ditugu.

1.- Komunikazioaren eremua:

1.1.- Komunikazio hartzailea eta adierazlea:

- Orientazio espaziala eta denborari dagokiona: Honakoak diskriminatzea: barruan-kanpoan, sartu-atera, itxi-ireki, goian-behean, altua-baxua, gainean-azpian, betea-hutsa, gertu-urruti, inguruan-iladan, aurrean-atzean, hasiera-bukaera; goiza-arratsaldea-gaua, orain-lehen-gero, goiz-berandu; astegunak eta hileak bereiztea, data esanguratsuak, urtaroak,...
- Irakur-idazketa funtzionala: Ondokoak idaztea: izen-deiturak, helbidea, adina, jaioteguna,... Irakurketari dagokionez, honako hauek identifikatzea: izena, helbidea, telefono-zenbakia, komun publikoak, zenbakiak eta garraio publikoen ibilbidea; bultzatu-tiratu-sartu-irten identifikatzea; familiakoen gutunontziak, txirrinak eta izenak identifikatzea,...
- Irakur-idazketa bere hartan iraunaraztea eta sakontzea.

1.2.- Matematika-adierazpena:

- Zenbakiei dagozkien oinarrizko kontzeptuak: Ondokoak diskriminatzea: gehi-berdin-ken, erdia-oso, bat ere ez-asko-guztia, lehena-azkena, berdina-desberdina, handia-txikia, handiagoa-txikiagoa,...
- Sailkapenak: Objektuak irizpideei jarraiki sailkatzea, objektu desberdinak eta antzeko objektuak ordenatzea, objektuak kategorien arabera multzokatzea, objektuak tasunen arabera sailkatzea,...
- Kalkulo, pisu eta neurtzeko oinarrizko eragiketak, eguneroko bizitzarekin zerikusia duten problemak.

2.- Autonomia pertsonalaren eremua:

- Autozaintza: komuna erabiltzea, elikadura, jantziak, higiena, kanpoko itxura,...
- Etxe bat zuzentzea: artikulua egokiak hautatzea, etxea zaintzea, oinarrizko aparatu eta erremintak erabiltzea, sukaldaritzarako trebetasunak,...
- Eritasun arruntenak ezagutzea eta nola aurrea hartu edo sendatu jakitea.
- Astialdia betetzeko eta jolaserako iharduerak. Zonan eskuragarri dauden baliabideak eta burutu daitezkeen iharduerak ezagutzea. Astiladia bakarkako jolasekin betetzea: jolas didaktikoak, bildumak, musika entzutea,... Taldean aritzeko mahai-jokoak: kartak, partxisa, dominoa,... Asteburuak planifikatzea: leku publikoetara joatea.
- Norbere buruan konfidantza hartzea, interesak eta premiak identifikatzea, toki publikoetan portaera egokia izaten jakitea,...
- Dirua erabiltzea: kolorea eta eitea direla eta ezagutzea, diruaren balioaren berri izatea, banketxeak erabiltzea, nomina baten esanahia ezagutzea,...

- Ordularia eta telefonoa erabiltzea: orduak-t'erdia-laurdenak eta minutuak irakurtzea, ordularia eta iratzargailua erabiltzea,...
- Kaleko hiztegia: Ondokoak ezagutzea: telefono publikoak, kioskoak, estankoak, zakarrontziak, gutunontziak, kaleko argiak, farmaziak, ospitaleak,...

3.- Gizarte-trebetasunen eta elkarteratzearen eremua:

3.1.- Gizarte-trebetasunak:

- Komunikazio-trebetasunak: norbaitekin hizketan ari denean begiratzea, behar bezain hurbil egotea, gorputz-jarrera egokia izatea, ahozko jarripideei erantzutea, galderak egitea, iruzkinak adieraztea, solasaldi informalak, taldeko solasladiak: arreta jartzea, interesa azaltzea, parte hartzeko txanda gordetzea,...
- Telefonoz deitu eta erantzutea.
- Beste pertsonekin harremanak izatea: entzuten eta erantzuten jakitea, lagunak egin eta gordetzea, sentimenduak adieraztea, harreman intimoak eta sexu-harreman egokiak izaten jakitea,...

3.2.- Elkarteratzea:

- Kanean moldatzen jakitea: etxe-inguruan ibiltzea, oinezkoen pasabideak erabiltzea, semaforoak interpretatzea, ezusteko egoerei irtenbide bat bilatzea...
- Garraio publikoak: Autobus, taxi eta tren-geltokia identifikatzea; trenaren eta autobusaren ordutegiak ezagutzea; egoera ezagunetan garraio publikoak erabiltzea...
- Komun publikoak: Gizon eta emakumeentzako komunak diskriminatzea; kartelak identifikatzea: "ez erre", "larrialdietarako irteera", "Bultzatu-tiratu-sarrera-irteera", "irekita-itxita", egunero erabili ohi diren dendak aurkitzea, enkarguak egitea,... Telefono-kabinak erabiltzea...

4.- Laneko orientabidearen eremua:

- Erabili ohi den hiztegia ezagutzea: Ekipamenduari dagokiona: kaxa, edukinontzia, erretilua, apala, palea, pisua, takila, gurdia, traspaleta,.... Erremintei dagokiena: mailua, destorlojogailua, guraizeak, grapagailua, portazelo, torlojogailu pneumatikoa, aliketak, labana, eskuko prentsa, prentsa pneumatikoa...
- Oinarrizko erabilpen-trebetasun eta abildadeak garatzeko balio duten zereginak: kolpatu, atera, presionatu, iltzatu, torlojotu, destorlojotu, sartu, krokatu, grapatu, moztu, tolestu, zabaldu, itsasi, karraskatu, desmontatu...
- Ezagutzazko prozesuak inplikatzten dituzten zereginak ikastea, hala nola, sailkatu, kontrolatu, egiaztatu, ordenatu, diskriminatu, zenbatu, pisatu...
- Materialak diskriminatzea: papera, kartulina, kartoia, plastikoa, zura, kortxoa, ehuna, skya, goma-espuma, soka, kablea, beira...

- Erremintak erabiltzea: mailua, guraizeak, grapagailua, portazelo, torlojogailu pneumatikoa, aliketak, labana, eskuko prentsa, prentsa pneumatikoa, destorlojogailua, etab. erabiltzea.
- Errendimendua, iraupena, erritmoa eta eragiketen kalitatea eta balioaniztasuna hobetzea, jarripideei jarraitzea, laneko segurtasun eta higiena, bertaratzeak eta puntualtasunak duten garrantzia.
- Lan bat bilatu, ziurtatu eta gordetzea: inprimakiak beteta enpleguak eskatzea, elkarrizketa bat izatea...

Premia bereziak izanik hezkuntza-erantzun berezia eskatzen duten nerabeei banan-bana arreta egiteko programak garatzeko oinarria edo esparrua da azaldutako edukinen proposamena.

Proposamenaren funtsezko ezugarrietariko bat da trebetasunak ikasleen adinari egokitzen zaizkiola -oro har, une honetan 16-19 urte inguru dute ikasleek-. Hori dela eta, gaitasunak sinpleak edo konplexuak izan daitezke, ikasle bakoitzarentzat alde zuretik finkatutako berariazko helburuen arabera, baina beti izango zaizkie gazteei erabilgarri.

Aipatutakoaz gain landutako banakako programak beste ezaugarri bat ere izan behar du, hots, etengabe gizarte-inguruneari edo elkarteari egin behar dio erreferentzia. Gauzak horrela, trebakuntza eta prestakuntzaren zati handi bat zereginen ikaskuntzarako ikasgelatik kanpo, are, ikastetxetik kanpo egin behar da eta ikaskuntzak etxean, lantokian eta Elkarteko beste hainbat lekutan kokatu.

Gurasoek eginkizun garrantzitsua dute programa honetan, batik bat autonomia pertsonalaren eta eguneroko bizitzaren alorrean. Gurasoak laguntzaile bilakatzen dira honakoan eta horregatik lortu nahi diren helburuei buruzko informazioa eman behar zaie eta behar dituzten orientabide guztiak luzatu. Horren asmoa zera da, eskuratutako gaitasunen mantenimendu funtzionala eta ikasitakoa beste egoera batzuetara orokortzea.

Irakaskuntza-ikaskuntza iharduerak burutzeko, **iharduera horiek errealitatean gertatu ohi diren antzeko espazioak aukeratu behar dira**. Hori horrela, ikastetxeak tailerrak zehaztu beharko ditu horretarako eta lanerako bankuak, erremintak eta zurezko metalezko eta abarrek material suntsigarriak,... ikasleen eskura jarri.

Zereginen ikaskuntzarako ikasgelaren programazioa ikasle-multzo jakin bati egokitzen zaio, eta horren bidez eremu jakin bateko irakaskuntza-ikaskuntza prozesua planifikatzen da denbora-epe jakin baterako. Lantzeko ikastxeak ezarritako helburu eta edukinak hartu behar dira kontuan, eta testuinguru orokor horretatik bertan ezarritako erabakiak moldatuko dira, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarrietara egokitu arte.

Irakasle-taldeak hartzen ditu erabakiak. Erabakiak hartzeko prozesua arian-arian burutzen den prozesu dinamikoa da. Prozesu horrek bi gauza ahalbidetzen ditu: alde batetik, hezkuntza-asmoak gizarte-testunguru zehatz batean kokatuta dagoen ikastetxe jakin bati hurbiltzeko modua ematen du eta, bestetik, ideia amankomunak indartu eta elkarbanatzeko bidea ematen du, ikasle guztien -hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne- ezaugarriei egokitutako arreta-mekanismoak ezartzeko bidea, alegia.

10.2.- Berariazko Ikaskuntzen Zikloa

Ziklo honetako helburuak lanbide-arlo jakin batean nahiz alderdi amankomunak dituzten lanbide-arlo bat baino gehiagotan prestakuntza eskuratzeko pentsatuta daude. Hona hemen helburuen berri:

- 1.- Ikasleei dituzten ezaugarri pertsonalekin bat datorren lanbide-perfilen batekin zerikusia duten gaitasunak eskuratu eta garatzeko bidea ematea, inguruneak eskaintzen dizkion aukerak kontuan hartuta.
- 2.- Lanbide jakin batean erabili ohi diren erremintak eta materialak erabiltzeko trebetasunak eta jarrerak bultzatzea, eta, beharrezkoa balitz, lanbide berriei moldatzeko gaitasunak indartzea.
- 3.- Zonako enplegu-aukerereri buruzko orientabideak ematea.
- 4.- Ikasgelan nahiz Ikastetxean irakasten diren lanbide-perfilei dagozkien zereginak burutzea.

Berariazko Ikaskuntzen Zikloak ondoko prestakuntza-eremu hauek barne biltzen ditu:

- Oinarrizko prestakuntzaren eremua (Autonomia pertsonala eta komunikazioa). Sakontze-maila.
- Gizarte-trebetasunen eta elkarteratzearen eremua.
- Lanbide-alorreko berariazko ikaskuntzen eremua.

Lehen bietan Oinarrizko Ikaskuntzen Zikloan jada ikusitakoak sakontzen dira.

Lanbide-alorreko berariazko ikaskuntzen eremua

Ohar orokorrak

Lanbide-alorreko berariazko ikaskuntzak, beste edozein ikaskuntza bezalatsu, ikasleen heldutasun-mailari egokitu behar zaizkio, bakoitzak bere erritmoan eskura ditzan. Zentzu horretan, prestakuntza prozesuan ikaslearen ahalbideak azpimarratu behar dira eta ez bere mugak. Dena den, muga horiek ezin dira guztiz baztertu, ez dira ahaztu behar.

Nolanahi izanik ere, subjektuaren ahalbideak baloratu behar dira eta lanpostuen ezaugarriak aztertu, bata besteari ahalik eta hobetoen egokitzeko. Horretarako gizarte-inguruneak eskintzen dizkion baliabideak, hau da, ingurunean eskainiko dizkion ahalbideak hartu behar dira kontuan, ikasitako lanbide edo trebetasunak ingurunean baliagarriak gertatzea nahi baldin badugu, behinik behin.

Burutiko atzerapenak dituzten pertsonen lanbide-prestakuntzarako programazioa lantzeko orduan, ondoko puntu hauek hartu behar dira oinarri gisa:

- 1.- Ikasleek lortu beharreko helburu eta edukinak horien gaitasunei egokitu behar zaizkie.
- 2.- Zailtasun-mailaren arabera sekuentziatuko eta mailakatuko dira, ikasleak igarotako fase guztiak kontuan hartuta.
- 3.- Behatu daitezkeen jokabideen multzoa osatzen dute iharduerak, ikasleak helburu eta edukinak erdiesteko burutzen dituen eginkizunak direlarik.

Berariazko Ikaskuntzen Zikloan ikaskuntzek balioanitzak izan behar dute nolabait; hala ere, iharduerak ez dira eskularen jarraipen konplikatuagoa soilik: berariazko helburuen berri argia biltzen duen programazioa finkatu behar dugu, metodologia berezi bat landu, berariazko materialak eta maila tekniko egokia duten profesional kualifikatuak izan behar ditugu laguntzaile.

Honako proposamenean burutiko atzerapenen bat duten pertsonak dituzten lanbide-aukeretako elementu arruntenen berri jaso dugu. Etorkizunean esperientziak osatuko ditu hemen proposamen gisa bildutakoak.

Ikaskuntza-egoera desberdinak planteatu daitezke: alde batetik laneko iharduera-mota bakar bati loturiko tailer monografiko batean burutu daiteke ikaskuntza, edo, bestela, trebetasun bat baino gehiago ikasteko aukera emango duten txandakako iharduerak diseinatu daitezke.

Antolamendu-formula ondokoen menpe dago:

- a) Oinarrizko Ikaskuntzen Zikloan izandako garapenaren menpe.
- b) Enplegua lortzeko aukera errealean menpe: zehatzak ala generikoak izatearen menpe, hain zuzen.
- c) Lantokietako prestakuntza burutzearen menpe, hots, praktikak enpresetan egiteko aukera izatearen menpe.
- d) Ikasgelan eta ikastetxean dagoen ekipamenduak eskeinitako aukeren menpe.
- e) Aldez aurretik landutako orientabide bokazionalako prozesuen menpe.

Ondoren aurkezten den proposamena, programaren poliobalotasuna ahaztu gabe, adibide gisa lanbide perfilak beharrezko duen gaitasun muina azaltzen saiatzen da, horretarako lanpostuaren azalpen orokorra, ekintza adierazgarrienak eta eskakizun profesionalak deskribatzen dira.

Aurrerantzean oinarrizko eskema hau, beste lanbide irudi batzuen curriculumaren diseinuak garatzeko abiapuntutzat hartuko da, hots, oinarrizko lanbiderako prestakuntza zeregin ikaskuntzaren bitartez egiten denean.

LANBIDE ARLOA:

ZURGINTZA

LANBIDE IRUDIA:

Altzari sinpleen fabrikazio bukatze laguntzailea

LANBIDE IRUDIA

GAITASUN OROKORRA:

Altzari sinpleen burutzapenean laguntzea, bukatze tekniken aplikazioan lagunduz: lixatzea, bernizatzea, leuntzea, ezkartzatzea..., garbitasun eta segurtasun neurriak harturik.

LANBIDE GAITASUNAK:

- Lantresnak egokiro erabili, egoera onean mantenduz eta zainduz, indarrean dauden segurtasun arauak betez.
- Gainbegiratzaileak emandako aginduak betez eta jarraipideak egoki interpretatuz.
- Bukatze tekniken aplikazioan laguntzea (lixatzea, leuntzea, bernizatzea, ezkaztatzea, tindatzea) ihardupide egokiak jarraituz.
- Materialeak, lantresnak eta beste elementu batzuk eramatea, lantegi eta sail honetan dauden arauak burutuz.
- Segurtasun eta garbitasun arauak aplikatzea.
- Bere ekintzek produkzio prozesuan duten eragina baloratzea.
- Larrialdi, arrisku edota istripu egoera bat ematen denean ezarritako neurriak jarraitzea.
- Bere erantzunkizun esparruan lan sekuentziak jarraitzea.
- Lantresnak garbi eta bere lekuan uztea.

IHARDUERA NAGUSIAK:

- Lantokia prestatzea segurtasun arauak kontutan harturik.
- Lana betetzeko beharrezko elementuak prestatzea eta ekar eramatea: lantresnak, makinaria, bukatze tekniketarako behar den materialea...
- Zur gainazalenzako bukatze operazioak betetzea: lixatu, tindatu, leundu, imprimatu, bernizatu, lakatu, ezkaztatu.

LANBIDE EREMUA:

Zurgindegi edo industriari tailerretan egingo du lan profesional honek konpontze edota berriztatze lanetan ari diren lantegietan, baita zurezko jostailuen eraikuntzaren eremuan ere.

Oro har, ez du lan autonomorik egiten, sarritan norbaitek gainbegiratu beharko du bere lana eta taldeko buruak nahiz enkoadore-pertsonalak emandako aginduak bete ote dituen ziurtatu, baita laguntzailearen trebetasuna eta abilezia kontutan harturik, lantokiko egokitasuna bilatuz.

LANBIDE BETEKIZUNAK:

Lanbide irudi honen zereginak betetzeko trebetasun batzuk eduki behar dira, hauek izan daitezkelarik: mugimen kontrola, koordinazio bisomotorea, gaitasun mekanikoa, aldebereko mugimenduen koordinazioa: eskuak, ukimenezko hautematea, norabidetasunaren hautematea, ikusizko eta espaziozko hautematea, motrizitate fina.

PROPOSAMEN CURRICULARRA

HELBURUAK:

- Bukatze tekniken aplikazioan laguntzea: lixaketa, tindaketa, leunketa, imprimaketa, bernizaketa, lakaketa, ezkaztaketa.
- Bere lana egiteko beharrezkoak diren zurgintzaren lantresnak eta makinaria berezia erabiltzea.
- Lanerako jarrera positiboa erakustea.
- Lan ohiturak, erantzunkizuna eta puntualtasuna garatzea.
- Ondo eginiko lanagatik poztasun sentimendua baloratzea eta bere lanbide gaitasunetan konfidantza izatea.
- Segurtasun eta garbitasun araei harrera egitea

EDUKIAK:

1.-Prozedurazko edukiak:

- Lan sekuentzia sinpleak burutzea.
- Tresneri mugikorraren: lantresnak, kolak... prestatze eta ekar eramate operazioak betetzea.
- Zuraren mekanizaketaren operazio lanak betetzea: zerraketa, ezkaztaketa,...
- Esku tresnak erabiltzea: arrabotak, arraspak, lixak,...
- Makina elektromugikorra erabiltzea: elektra daratulua, elektra arrabota, lixa makina...
- Bukatze eta prestatze operazioak egitea: lixatu, tindatu, bernizatu, ezkaztatu...
- Tailerreko mantenimendu, ordenaketa eta garbitasun lanak betetzea.

2.-Jarrerazko edukinak:

- Asistentzi eta puntualtasun ohiturak garatzea.
- Segurtasun pertsonalaren neurriak betetzea.
- Babesteko elementuak erabiltzea: arropa aproposa, betaurrekoak, eskularruak, moxorroa...
- Tailerreko instalazioak, lantresnak eta materialeen mantenimendua eta lan prozeduretan garbitasun eta ordena indartzea.
- Lan on baten kalitatea baloratzea.
- Ekintza bat aurrera eramateko taldeko lana baloratzea.
- Ikasteko interesa garatzea.

3.-Edukin kontzeptualak:

- Zuraren bukatze oinarriko tekniken ezagupena: lixaketa, bernizaketa, ezkaztaketa, lakaketa,...
- Zurgindegiko segurtasun eta garbitasun arauen ezagupena.

GAITASUN UNITATEAK:

- 1.-Lantresnen erabilera:
 - 1.1:Leuntzeko, labantzeko eta lixatzeko tresnak
 - 1.2:Marruzketatzeko tresnak
- 2.-Makinen erabilera:
 - 2.1:Elektra arrabotak
 - 2.2:Lixa makina
- 3.-Zuraren bukatzea:
 - 3.1:Ezko eta leunketak
 - 3.2:Margo, tindagai, berniza eta lakak
 - 3.3:Kolak eta oreak

- 4.-Segurtasun eta garbitasuna:
- 4.1:Tresnen ardurapena
 - 4.2:Tresnen prestaketa
 - 4.3:Mantenimendu eta ordena
 - 4.4:Lehen laguntzak

ZEREGINAK ETA BERAIEN SEKUENTZIAZIOA

Zeregin bat, helburu tinko bat lortzeko ahalegin fisiko edo mentala eskatzen duen operazioen multzoa da. Hemen agertzen diren zereginak oinarritzko lan zereginei ematen die erantzuna, bere sinpletasunagatik zuraren munduarekiko lanpostu anitzetan aplika daitezkeenak.

Zereginen ikaskuntzarekin, bai taldeko bai bakarkako eguneroko ekintzetarako prestatu nahi da; ezaguera, diskriminazioa eta lan ekintza honi dagozkion tresna eta materialeen zainketa eta erabilera.

Nahiz eta helburuak berdinak izan behar diren ikasle guztientzat, kontuan izan behar da seguraski zereginak betetzerakoan egongo diren maila desberdinak, bakoitzak behar izango duen denboran eta bakoitzaren gaitasunak eta idiosinkrasia bera ikusirik behar duen laguntza motan.

Behar duten laguntzari buruz, kontutan izan beharko da zereginak betetzen errazten duten laguntza materialearen erabileraren beharra. Adibidez, zeregin batzuk neurri batzuen arabera makinak egokitzea eskatzen du..., aurretiko prestakuntza batzuk daukaten zailtasunagatik laguntzaile guztiak ezingo dituztenak egin. Kasu hauetan giden erabilera, eta zereginen aurretiko prestakuntza ezinbestekoa bihurtzen da irakaslearentzat.

Era berean, merkatuan dauden makina eta teknika motak, trebetasun klase desberdinak eskatzen dituzte, eta hau ere kontutan izan beharko da laguntza materialea egiterakoan.

Beste alde batetik, zereginen betepenarekin zuzenki erlazionaturik egon ez arren, izugarritzko garrantzia du ardura, mantenimendu eta ordena, bai tresnena, bai makina eta bai tailerrarena. Beraz, atal honek ikaskuntzaren edukin garrantzitsu bat osatzen du.

Ondoren, lanbide irudi honi zeregin arruntenak dagozkion betebeharren adibide bat eskainiko da, baita beraien sekuentzia adibide gisa ere.

ZEREGINAK	SEKUENTZAZIOA
1.-Lixatu	<ul style="list-style-type: none"> -Txaplata jarri, altzariak dituen akatsak zuzendu -Lixa zinta makinan ezarri -Lixa makinaren lotunea konektatu -Pieza lan mahaian ipini -Lixa makina piezaren azaletik pasatu irregulartasunak kentzeko -Pieza ondo lixatua geratu dela gainbegiratu
2.-Marruzketatu	<ul style="list-style-type: none"> -Arrabota mekanikoa muntatu, langileak mugitzen du pieza -Planoak lortu beharreko maila taiatu -Pieza lan mahaian ezarri -Esku bien mugimendua koordinatuz marruzketatu -Ahalegina autosifikatu -Etengabeki azala leun mantendu -Bukatzea egiaztatu

Zereginen ikaskuntzarako...

3.-Imprimatu	<ul style="list-style-type: none"> -Pieza lan mahaian ezarri -Pieza (edo altzaria) baldintza onean dagoela egiaztatu -Narraiatu dauden aldiak lixatu -Tapaporosa aplikatu -Altzaria lan mahaitik kendu -Berez lehortzen utzi -Bernizaren bigaren eskua eman operazioa erreplikatzuz
---------------------	--

ZEREGINAK	SEKUENTZIAZIOA
4.-Ezkaztatu	<ul style="list-style-type: none"> -Ezkoa prestatu -Dagokion baietarekin zura igurtzi -Brotxaz, pintzelez edo belakiz ezkoa zabaldu -Lehortzen utzi -Baieta batez gogorki igurtzi disdira fine eta uniforme bat lortu arte
5.-Bernizatu	<ul style="list-style-type: none"> -Berniza prestatu -Pieza horizontalki lan mahaian ezarri -Brotxaz berniza eman -Lehortzen utzi -Lixa papera leunki pasatu -Berniz bigarren kapa bat eman -Lehortzen utzi
6.-Tindatu	<ul style="list-style-type: none"> -Pieza horizontalki lan mahaian ezarri -"Muñequillaz" tindagaia eman -Lehortzen utzi

<p>EBALUAZIO IRIZPIDEAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Bere lanpostua prestatu eta antolatu, materialeen pilakera eginez, segurtasun eta laguntza medioak jarritz, ordena eta garbitasuna mantenduz. -Makinaria eta lantresnak egokiro erabili, ezarritako aginduak jarraituz eta eta beraien mantenimendu eta zainketaz arduratuz. -Emandako eginkizunak burutu gainbegiratzaileak adierazitako jarraipideak egoki interpretatuz ... tekniken aplikazioan. -Emandako eginkizunak burutu gainbegiratzaileak adierazitako jarraipideak egoki interpretatuz bukatze tekniken aplikazioan: lixaketa, tindaketa, leunketa, imprimaketa, bernizaketa, lakaketa eta ezkaztaketa. -Ezarritako segurtasun eta garbitasun arauak betetzea egindako zeregin desberdin guztietan.
--

10.3.- Lantokietako prestakuntza.

Zereginen ikaskuntzarako ikasgeletatik datozen eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei lantokietan emandako prestakuntzak helburu nagusi bat du, gaitasuna produkzio-testuinguru errealean ikasi eta eskuratzeko modua ematea, alegia.

Ikaskuntzaren fase honetan lantzen diren gaitasun eta trebetasunek laneko testuinguru errealetera hurbiltzeko aukera ematen die ikasleei, eskolan jorratu ezin daitezkeen gaitasunak eskuratzen dituztelarik horrela. Era berean, zenbait ikaskuntzari heltzeko motibazioa eta prestakuntza areagotzeko ere abagadune aparta ematen die lantokietan aritzeak.

Lantokietako prestakuntzak izugarriko balioa du beraz. Izan ere, hiru puntutan azal daiteke balio horren berri:

- a) Eskolan eskuratutako oinarriko ikaskuntzekin edo berariazko ikaskuntzekin zerikusia duten produkzio-alorreko egoeretan parte hartzera bultzatzen ditu ikasleak, eta ikaskuntza berriak eragiten.
- b) Ikastetxea eta sektore jakin bateko produkzio-entitateak nahiz lanpostu berezi bateko berariazko entitateak harremanetan jartzeko esparru zehatz bat ahalbidetzen du, bertako errealitate teknikoak eta prestakuntza, hezkuntza, lan nahiz gizarte-alorreko errealitateak ezagutzeko modua ematen duelarik.
- c) Ikasleak lan-eremuan integratzen ditu, bertako harreman tekniko eta sozialen sarean kokatzen, ezagutu ditzan. Berez integrazioak xede bikoitza du, aipatutakoaz gain, produkzio-entitateek ere etorkizuneko profesionalak ezagutzen baitituzte bide batez.

Prestakuntzak iraun bitartean burututako iharduerak ez dira ordainduko eta ez du izango inolako lan-kontraturik ere. Zereginen Ikaskuntzarako Programarentzat ezarritako ikaskuntza-plan orokorraren barruan dagoenez, plan orokor horretan jasotakoak ditu oinarri. Prestakuntzan parte hartzen duten profesionalak, bai eskolakoek eta baita produkzio-inguruneak ere, diseinatu, garatu eta ebaluatzen dute. Ezein kasutan ez da pentsatu behar laneskuez hornitzeko aukera edo ordezkapenak egiteko bidea denik, ikasleek lanpostu errealetan aritzearekin batera ikasi eta euren gaitasunak garatzen dituzten arren.

Zereginen Ikaskuntzarako Ikaskuntzaren Proiektuan finka daiteke Lantokietako Prestakuntza-aldia -egoki irudituz gero, jakina-, jarraitu beharreko berariazko prozesuen, enpresen eta bertan burutu beharreko ihardueren berri bildu behar delarik kasu horretan. Halaber, lantokietako prestakuntzak zenbat denbora hartuko duen, zer tresna landuko diren eta ikaskuntzak nola ebaluatuko diren erabaki behar da horrelakoetan.

Zereginen Ikaskuntzarako Ikasgelako irakasleei eta enpresetan inplikaturiko pertsonen dagokie aldi hori zehaztea. Guztiek koordinaturik egon behar dute, euren gain hartutako funtzioen arabera.

Gauzak horrela, programazioak ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza planaren eta ebaluazio-planaren berri ematen du. Dena den, plan hori ez du ikastetxeko irakasle-taldeak soilik garatuko; produkzio-guneetan kokatutako hezkuntza-agenteen laguntza ezinbestekoa du, hala nola prestakuntza-egonaldietako arduradunen eta prestatzaileen laguntza.

a) Ikasgelaren programazioan ondokoak egin beharko dira:

- Helburu orokorrak (amaierako gaitasunak) erdiesteko beharrezkoak diren helburu zehatzagoen sekuentziazioa ezarri behar da.
- Helburu horietariko bat edo gehiago lortzeko modua emango duten edukinak eta iharduerak finkatu.

- Edukinak eta iharduerak sekuentziatu eta hartuko duten denbora mugatu. Sekuentziazioak argi eta garbi azaldu behar ditu ikastetxean burutuko diren aldiak eta lantokian burutuko direnak.

- Lantokietako prestakuntza burutuko duten ikasleak aukeratzeko irizpideak ezarri, bakoitzak jarraitu beharreko prestakuntza-ibilbidearen berri emanez.

- Ikastetxean, hezkuntza-egoeretan eta lantokietako ihardueretan aplikatutako edo kontuan hartu beharreko metodologi jarraipideak finkatu.

- Prestaketa, jarraiketa eta hausnarketa-aldietan erabiliko diren tresnak (materialak, koadernoak, orriak, informazioak,...) mugatu.

- Ebaluaziorako erabiliko diren metodoak, uneak eta tresnak zehaztu. Egonez gero, ebaluazio-egfoera bereziak finkatu. Enpresako prestatzaileak prozesu osoan izango duen partaidetza-maila ezarri.

- Enpresetako arduradunekiko koordinazio-prozedurak mugatu eta harreman horiek noiz gertatuko diren adierazi.

b) Lantokietan Programazioak ituntzeko prozesuetan kontuan izan beharreko alderdiak:

- Enpresak bilatu eta aukeratu, bertan prestakuntza-egonaldiak burutzeko.

- Prestakuntzako lankidetzak-akordioaren kudeaketa egin.

- Aldez aurretik ezarritako curriculumak enpresa bakoitzaren ezaugarriari doitu.

- Guztien artean programatutako iharduerak burutzeko ikaskuntza-egoerak guztien artean zehaztu. Finkatutako sekuentziarioa kontuan hartuta, ikasleak prozesu nahiz lanpostu zehatzetan kokatu.

- Tresna, koordinazio, metodologi jarraipide eta ebaluazioak guztien artean ezarri.

- Prestatzaileen ezaugarriak, funtzioak, prestutasuna eta kopurua finkatu.

- Enpresek zenbat ikasle har dezaketen zehaztu.

- Eskatutako dokumentuak izapidetu.

- Programazioa eta ikasleen prestakuntza-ibilbideak berriz ere landu.

c) Ikasleak eta enpresak hautatzeko irizpideak

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen ezaugarri zehatzak eta baloratu behar diren alderdiak azpimarratuko ditugu hemen, ikaslea lanbide-inguruneari ahal den hobetoen doitzeko.

a) Hau da kontuan hartu beharreko lehen gauza: gurasoak enpresetan praktikak burutzearekin ados ote dauden. Normalean ados egongo dira informazio egokia izanez gero, etxetik praktikak egingo diren lantokira garraiabide egokiak badaude, subjektuak horretarako autonomia egokia badu eta elkartean behar bezala moldatzeko baliabide pertsonal egokiak baditu.

b) Ikaslearen ezaugarriak kontuan hartuta erabakiko da lantoki batean, lanerako zentro batean edo ikastetxean bertan arituko ote diren.

c) Lantoki arrunt batean prestakuntza izateko, aurrena enpresariarekin praktikak burutzeko baldintzak eta laguntzak negoziatu beharko dira, hau da:

- praktiketako tutorearen jarraiketa
- enpresak prestatzaileak egongo ote diren
- bertako, gizarte-zerbitzuen sistemako, urritasunen bat duten pertsonentzako lanbideratze entitateetako nahiz laguntzako borondatezko entitateetako laguntzak
- tailerreko Irakasle bat izateko aukera, lanpostuko ikakuntzak gidatu eta enpresan bertan lan egiten duten langileentzako orientabideak egokituko direla bermatzen duen pertsona gisa.

d) Praktikak lantoki arrunt batean egitea ezinezkoa bada, egoera bereziki gatazkatsua delako, babestutako enplegurako entitateetara joko dugu laguntza bila.

Horrelako entitateetan ondoko lanetan ihardun daitezke ikasleak:

- 1.- Kanpoan zerbitzuak ematen dituzten ekipoetan
- 2.- Lantoki arruntetako zenbait lanpostutan
- 3.- Kateetan edo produkzio-ekipoetan, kasuan kasuko enplegurako entitatearen instalazioetan bertan
- 4.- Lanerako zentroetan

Oro har, ikasleek euren eginkizunak betetzeko behar dituzten baliabide nahikoak dituzte goian aipatutako enplegurako zentroek. Hala ere, praktiken urrats guztiak prestatu behar dira. Enpresa hauek enpresa arruntzat joko dira, lantokietako ikaskuntzak burutzeko aukera gehiago ematen duten arren.

Esanak esan, kontuan hartu behar dira lehen aipatutako alderdi guztiak, hots, moldatzen lagunduko dien egokitzapenezko jokabidearekin, gizarte-gaitasunekin eta balio eta arauak eskuratzearekin zerikusia duten alderdiak. Era berean kontuan izan behar da lan-inguruneari doitzen ote den ikustea subjektu batek aukera bat edo bestea burutzeko dituen ahalbideen erakusle egokia dela, lantoki batean ikastea ezinbestekoa dela doikuntza ahalik eta denbora-epe laburrenean gertazeko bide egokiena dela ahaztu gabe.

11.- BIBLIOGRAFIA

AA.VV. (1982) *"Educación Especial. Pretalleres I y Pretalleres II"* en "Vida Escolar", 218 eta 219. zk. Hezkuntza eta Zientzia Ministraritza.

AA.VV. (1989) *"Una Escuela comprensiva e integradora"*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

AA.VV. (1991) *"Evaluación de las personas con deficiencia mental"*. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

AA.VV. (1991) *"Manual de elaboración de planes de servicios e intervenciones individualizadas"*. Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

AA.VV. (1992) *"Tránsito a la vida adulta de jóvenes con necesidades educativas especiales"*. HEZI/EHU eta IBE-CERE. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

AA.VV. (1994) *"Formación Profesional Específica. Marco Curricular de la formación en centros de trabajo"*. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

B. Herman, E. Zaccarelli, C.S.C. (1991) *"Formación de Instructores"*. Trillas.

Calzón Vidal, Adonina (1994) *"Orientación profesional del Deficiente Mental"*. INSERSO.

Montero Centeno, Delfín (1993) *"Evaluación de la conducta adaptativa en personas con discapacidades. Adaptación y validación del IVAP"*. Deustuko Unibertsitateko HEZI.

URI-EDUCTRADE proiektua (1988) *"Necesidades Educativas Especiales. Eductrade. Utilización de recursos instrumentales"*.

Weatherman, Richard F. (1993) *"La Evaluación de la Conducta Adaptativa en la Mejora de la Calidad de los Servicios para Personas con Discapacidad"* Educación Especial y Tránsito a la Vida Adulta en "Discapacidad y Conducta Adaptativa". Deustuko Unibertsitateko HEZI.